

# luma berrien eleak

2012ko ekaina  
www.idazten.com  
10. zb. 3 €

idazle berrien sorlanak, iritzi eta gogoetak, narrazioak, antzerkiak, poesiak...



Miren Agur Meabe

# Idazle Eskola

# Idazle Eskola

## Idazketa Literarioa eta idazketa profesionala

### Hezkuntza Sailak Homologatua



## GRADUONDOKOA

### Eskola presentzialak (larunbatetan) eta telematikoak



#### MODULOAK:

Ipuinak idazten ikasi. Edorta Jimenez  
Iritzi artikulua idazten ikasi. Pako Aristi  
Poesia idazten ikasi. Tere Irastortza  
Ozenki irakurri. Itziar Gomez  
Antzerkia idazten ikasi. Xabi Lopez

#### MINTEGIAK

Idazleak irakurle  
Idatzi eta zuzendu (Ikasle-ohientzat)

#### IDAZKARITZA:

UNED. San Martin Agirre plaza, 4. 20570 BERGARA

ASMOZ Fundazioa. Asuncion Etxea.  
Joseba Elozegi alkatearen hiribidea, 275.20015. DONOSTIA



ASMOZ: 943 2212369

E-POSTA :  
idazleeskola@idazten.com  
arse@asmoz.org

#### INFORMAZIOA:



www.idazten.com  
http://eskola.asmoz.org



Mugikorra: 639456204

Antolatzailea:



Elkartean:



Babesleak:



# aurkibidea

## IRITZI ETA GOGOETAK

<i>Gaur egungo kanonak</i> - Lide Iparragirre Mercero .....	4
<i>Gaur egungo politikari hauek</i> - Amaia Portugal Gonzalez .....	5
<i>XX. mendeko soldadutza</i> - Haizea Galarraga .....	6-7
<i>Trikornioarekin ametsetan</i> - Odei Arregi .....	7-8
<i>Idatzi beharraz</i> - Carmen Valois .....	9
<i>Ez bankari, ez anarkista</i> - Irene Gil Legarra .....	10

## NARRAZIOAK

"Dana eman biar yako matte dan azkatasunari"

Adriano De Mata .....	11
<i>Isiltasunaren zaindaria</i> - Adriano De Mata .....	12-13
<i>Negarritia</i> - Miryan Irastorza .....	14-15
<i>Zoritzarreko ikuspena</i> - Lide Iparragirre Mercero .....	15
<i>Hogei zimur lehenak</i> - Alaitz Andreu .....	16-17
<i>Isiltasun beharrean</i> - Maitane Legarreta Etxezarreta .....	17
<i>Mendekua</i> - Iñaki Odriozola .....	18-19
<i>Bidaiaria</i> - Urtzi Leonet .....	19
<i>Eskumuturrean min</i> - Haizea Galarraga .....	20-21
<i>Edo ni edo Siza</i> - Ekhiñe Egiguren .....	21-22
<i>Amselari</i> - Miryam Irastortza .....	23

## SOLAS ETA JOLAS

<i>Denbora-pasa</i> - Isabel Martin .....	24
<i>Komikia</i> - Isabel Martin .....	25

## ELKARREKIN HIZKETAN

🔊 <i>Negu-sua</i> - Idoia Gereñu .....	26
--	----

## ELKARRIZKETA

<i>Azalaren kodetik, bitsa eskuetara</i> - Ekhiñe Egiguren .....	29
<i>Miren Agur Meaberi elkarrizketa</i> - Isabel Martin, Maddi Iñarri eta Adriano De Mata .....	30-32

## POESIA

🔊 <i>Naizenak</i> - Uxo Elustondo Arzallus .....	33
🔊 <i>Balinda</i> - Amaia Portugal Gonzalez .....	33
🔊 <i>Bota dut eta Elurra ari du</i> - Ainara Maia .....	34
🔊 <i>Hitzak</i> - Izaskun Etxebeste .....	35
🔊 <i>Lokarriak</i> - Izaskun Etxebeste .....	36
🔊 <i>(5 poesia)</i> - Ione Gorostarzu .....	36-37
🔊 <i>Harripeetan</i> - Itziar Gomez .....	38
🔊 <i>Biografia eta Eguraldia nire bihotzean</i> - Isabel Martin .....	39
🔊 <i>Mudatzen</i> - Maitane Legarreta Etxezarreta .....	40
🔊 <i>Izan konfidantza</i> - Maitane Legarreta Etxezarreta .....	40
🔊 <i>Ukitu gabe laztandu</i> - Maitane Legarreta Etxezarreta .....	41
🔊 <i>Hitezko ozeanoa</i> - Ekhiñe Egiguren Azkune .....	42
🔊 <i>Hutsetik idatzi eta Leihotik I eta II</i> - Ekhiñe Egiguren Azkune .....	43
🔊 <i>Errepikaezinak</i> - Irene Gil Legarra .....	43
🔊 <i>Urteak</i> - Irene Gil Legarra .....	43
🔊 <i>Bihotzean ditut lokarriak</i> - Odei Arregi .....	44
🔊 <i>Arimaren melodrama zure begietan</i> - Odei Arregi .....	44

## IRAKURKETAK

<i>des-egiten</i> - Xabi Lopez .....	45
<i>Azken garaipena</i> - Urtzi Leonet .....	46
<i>Leturiaren egunkari ezkutua</i> - Ekhiñe Egiguren Azkune .....	47
<i>Eta orain badakit</i> - Ekhiñe Egiguren Azkune .....	48
<i>Usoa, hegan etorritako neskatua</i> - Alaitz Andreu .....	49

## GURE ARRASTOA

51-55

## NOR DA NOR

56-58



Azala: *Mila magnolia lore*. Idazlea: Miren Agur Meabe.  
Ilustratzailea: Eider Eibar. Argitaletxea: MEZULARI.

ENTZUKETAK: [WWW.IDAZTEN.COM](http://WWW.IDAZTEN.COM)



ORRIAN ENTZUNGAI

### IDAZLE ESKOLA

ZUZENDARIA: Tere Irastortza

### IDAZKUNTZA KONTSEILUA:

1. eta 2. mailako ikasleak

### KOORDINAZIOA:

Izaskun Etxebeste,  
Maitane Legarreta,  
Izaskun Etxeberria.

### DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

GUAIXE KOMUNIKAZIOA  
[argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)

### INPRIMAKETA:

GERTU Inprimategia

L.G. SS-803/04



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# Gaur egungo kanonak

**Estetikaren irizpideen menpe pertsona asko dagoen arren, emakumeak izan dira, dudarik gabe, historian zehar gehien sufritu behar izan dutenak.** Bizitza soziala mugatzeaz gain, nor-tasuna eta izaera ostu zien garaiko gizarteak; gizon bat *ehizatzea*, familia izatea eta etxearen ardura hartzea aurrera egiteko aukera bakarrak zirela pentsaraziz.

Egun, zoritxarrez, gauzak ez dira nahi adina aldatu. Itsumustukajarrailu beharreko edertasun eredu batezarri da, baina norke ezarri du? Emakume argalaren idealizazioa edertasun industriek eragin dute, eta milioi asko mugitzen dutenez, ez dirudi urrezko arrautzak erruten dituen oiloa akabatzea kome-nigarria denik.


Datuak nabarmenak dira. Mendealdeko emakumeen %80 ez dago gustura bere gorputzarekin. %20 ebakuntza-gela batean egona da silueta hobetzeko eta horietako %40k errepikatzea erabakitzen du.

Aurten, oso deigarria iruditu zaidan kasu bat ezagutu dut. Jone deituriko neskatxa batek selektibitatean oso emaitza onak ateratu zituen, eta operari gisa, hainbeste desiratutakoa lortu zuen: liposukzioa. Non geratu dira betiko sariak? Orain, liposukzioak edo bular-handitzeak oparitzea dago modan, arrisku handiak izan ditzaketan ebakuntzak direla kontuan hartu gabe. Honela, Joneren istorioak ez zuen amaiera zo-

riotsurik izan. Operazio ondorengo egunetan, hesgailuz estalita eta ia mugiezinik egon zen. Heskailuak kendu zituen egunean iritsi zen arazoa; izan ere, gorputz osoa konkorrer eta pleguz beteta zuela konturatu zen. Momentu horretan, aurretik hain bel-durgarria zitzaion gorputza, orduan baino askoz ere ederragoa zela onartu zuen, baina jada ez zegoen atzera egiterik.

Gauzak ez dira beti nahi dugun moduan gertatzen, bereziki, gure esku ez dagoenean, baina dugunarekin pozik bizitzen ikastea badago gure esku. Askotan errepikatatu arren, ez dio egia izateari utziko: emakume baten edertasuna ez dago bere janzkeran, ez bere itxuran, eta ezta bere orrazkeran ere. Edertasuna pertsona bakoitzaren begietan dago, pertsona horren arima erakusten duten leihoetan, alegia.

**Lide Iparragirre Mercero**



# Gaur egungo politikari hauek...

**Gazteak eta ortografia.** Hedabideetan ziklikoki agertzen den gai klasikoa. Noizean behin gogorazi behar baitzaigu nerabeek ez dakitela idazten SMS mezuen erruz, elebitasunak ere badituela bere arriskuak, *señoe*k “la letra con sangre entra” aldarrikatzen zuten garaian ez zela akatsik txikiena ere egiten. Gaur egungo gazte hauek fundamentu gutxi dutela esateko hamaika modu. Bada, ez da bidezkoa. Badira orban latzagoak uzten dituzten akatsak.

Zuzentasun linguistikoari dagokionez, azalean geratzen gara. Bestela, ez ginatke horrenbeste tematuko nerabeen ortografia-akatsekin. Ez, behintzat, politikarien semantika-hutsegiteekin baino gehiago. *Autogobernu*, *demokrazia*, *ongizate*... gozokizko hitzak oparitzen dizkigute dir-dir egiten duen paper koloretsuan bilduta, baina irekiz gero azukrea bezala disolbatzen dira. Denak balio du azalak liluratzten badu, eta ezerk ez du balio, egunkari-paper zatarretan bilduta badator. Superfizialak.


Hiztegia gero eta meharragoa da. Politikariek apaetik hartzen dute, ahalik eta termino ponpoxoena aukeratu, eta dagokion orria kendu. Tolestu, puskatu, lankideekin partekatu... Harik eta hitz asemantikoan edukiontzira bota arte. *Zeharkako*, *partehartzaile*, *berrikuntza*...

Nago politikariek ez dituztela neurtu ekintzon ondorioak. Hitzak odolusteari ekin ziotenean, gu gintuzten jomugan, baina oharkabean haiek ere irentsi dute amua. Hain bihurtu dute abstraktu hitzen esanahia, ezen haiek ere ez baitakite zer esan nahi duten.

Testu idatzien ahoskeran aditua den Julia Marin irakaslearekin ikastaro bat egin nuen behin. Hark esan zidan testu bat ondo irakurtzeko, transmititzeko, hitzak ikusi egin behar dituela

hizlariak, irakurri ahala. Zer ikusten du, ordea, politikari batek, *berrikuntza* esaten duenean? Hitzak hutsik daudenean, garuna itsu da. Eta hizlariaren erreferentzia ke-laino soila denean, ahoskera da lausotzen hurrena. Galde diezaietela ea zer pasatzen zaien burutik, *tránsversalidad*, *párticipacion* edo *innovacion* ahoskatzen dutenean.

Esdrujulismoak itsututa, laster hasiko dira gure nerabeak gaztelaniazko testu-iruzkinetan tildeak nonahi jartzen. *Agudak* eta *llanak* ziren ere ez dute jakingo. Eta orduan ere euskarari egotziko dio errua baten batek, edo SMS mezuei, eta lehenago irakasleak askoz hobeak zirela ere aipatuko du, nostalgiko.



# XXI. mendeko soldadutza

## PROPOSAMENA

**Gaztea naiz orain eta are gazteagoa nintzen soldaduskaren amaiera dekretatu zenean.** Adindun jakintsuek ordea, kontatu izan didate, anitz aldiz, armadan zibilek egiten zuten zerbitzu militar behartuaren inguruan hainbat bizipen.

Orain, XXI. mendeko hastapenean, Euskal Herriko gizonezko gazteentzat ezinbesteko deritzodan soldaduska berria aldarrikatu gura nuke, eta proposamen bat plazaratu. Soldaduskaren berpizkundera; bai, hori da! Aldaketa batzuk eginez, baina soldaduska azken finean.

Ilea moztu eta uniforme soinean. Horren trukean, ilea zapi baten laguntzaz jaso eta eguneroko uniforme jantzi: etxeko-zapatilak, mantala (lore hornitua eta ahalik eta koloretsuen), latex eskularruak, eta gainontzekoa zuen esku. Nahikoa duzue guzti horrekin; beraz, petatean ezer gutxi eraman beharko duzue: pare bat galtzontzilo garbi, hatzapar lodian zulorik gabeko galtzerdiak, prakak eta alkandora batekin ... soberan.

Ikusmen arazoak badituzu ez pentsa *inutil* izendatua izango zarenik; ezta gutxiagorik ere! Herren bazabiltza ere, egon zaitez lasai, ez duzu eragozpenik izango eginbeharrak burutzeko. Lodi, lodiegi zaudela? Ados, bikain! Komeni ere komeniko zaizu soldaduskan sartzea orduan! Argi geratu da beraz: XXI. mendeko soldadutzan *inutilik* ez dago; denak zarete baliozkoak. Gauzak horrela, has zaitezketen beste aitzakia bat asmatzen *inutilen afarien* oinordeko gisa.

18 urte bete, eta beti egin izan den bezala: zozketa garaia. Oraingoan ez zarete Melilla puntara joango; lan handia baitago egiteko gure inguruan. Urtebete emango duzue zuen herriko- edo ondoko herriko- etxe batean zerbitzu militarrean (barkatu, oraingoan: neskame militar lanetan). Armak etxeko ejertzitoak aukeratuko ditu, beti egin izan den legez: lanbasa, erratza, irabiagailua ...

Dena prest? Zuen egunerokotasuna izango denaren berri izango duzue hemendik aurrera. Bandera igo, (eguna hasteko beste modurik ez dago) hau da, perstianak altxatu etxeko kideak esnatzeaz daudenean, eta berriro ere jaitsi lotarako ordua ailegatzean.



*Erregimen militarra?* Oso antzekoa: goizeko 5etan zutik eta etxekoei gosaria prestatzera! Arauak bete beharko dituzu jakina; baina ariketa fisikoak ere ez du huts egingo XXI. mendeko soldadutza honetan. Urrutiko supermerkatuara joan beharko zarete erosketak egitera, kilometro batera dagoenera gutxienez. Eta ahaztu aurretik, poltsak banan-banan eraman beharko dira etxera, hamar joan-etorri eman behar badituzue ere. Fisikoki eta mentalki indartsu egon behar zarete, bestela zer?

Ezaguna da aspaldian soldaduskan bazkaltzen zena; *“comer el rancho”* deritzoten horri. Ez, ez ez; horrelakorik orain ez. Familiako bakoitzaren dastamen lehentasun eta gustuen arabera antolatu beharko dituzu otorduak; baliteke aita dietan egotea, amak lekak gorrotatzea edota seme-alabek arrainik nahi ez izatea. Kontuan hartzekoa guzti hori!

Permiso egunik ote duzuen pentsatzen ari zarela badakit ... Bai gizon; izango duzue hilean behin (hilekoa bezala bai, baina atseginagoa) askatasun asteburu bat etxera bueltatzeko.

Zigorak ere jasan beharko dituzue egitekoak bete ezean, noski. Espetxerik ez dago orain; baina bali-

teke oraindik okerragoa izatea: ganbara. Ganbara garbitu eta hantxe biziraun.

P.D: Zaintzaile, guardia gauak ere egin beharko dituzue; kasu honetan etxeko ume txikia gaixo dagoenean hura zaintzen geratu. Negar egiten duenean kontsolatu, sukarra badu botika eman, lo egin ezinik egotekotan ipuinak kontatu .... Zuk ikusi!

Zer? Gustatu al zaizu XXI. mendeko soldaduska? Zuen zerbitzu militarra desagerrarazi zuten duela urte anitz, baina neskame zerbitzu militar honek bizirik dirau oraindik ere, eta ez da urtebeteko soldadutza ez, bizitza osoa harrapatzen duena baizik. Eta orain, imajina ezazu hori berori baina zortzi orduko lanpostu batekin batera!

Haizea Galarraga

# Trikornioarekin ametsetan

**Bart gauean bat-batean esnatu naiz, izerditan blai.** Guardia Zibil batekin egin dut amets eta gustatu egin zait. Trikornioa zeraman jantzita, eta bere biboteak kilimak egiten zizkidan. Irudi horrek berriz lo hartzea galarazi dit, eta, ohean bueltaka minutu batzuk pasa ostean, ezinegonak egongelako sofara eraman nau; mandoa eskuan hartu, eta automatikoki telebistari begira gelditu naiz begiak zabal-zabalik.

Kontzientzia itzali dut telebista piztu ahala; psikoanalisisa ez zait gustatzen, ametsi tripak atera eta neure trapu zikinei begira gelditzeak ez nau lasaitzen, ez naiz fio nire barruko Sigmund Freud txikiaz.

Eta amets honen ostean, zer esanik ez, ez dut inolako azalpenik nahi, isildu eta ahaztu, ez dut besterik egiteko asmorik. Horrexegatik nago telebistari begira goizaldeko hiruretan, kontzientzia edo analisirako joera ezabatzeko ezagutzen dudan tramankulurik eraginkorrena hauxe delako. Imajina

ditzaket politikariak, erretiro adina atzeratzearen alde bozkatu ostean, etxera iritsi eta, zapatak kendu gabe, sofan botata telebistako mandoa astintzen.

Halaxe nago neu ere, pantailan harat-honat dabilen neska ilehori batek hipnotizatuta. Hitz egiterakoan desafinatzeke daukan abileziagatik kontratatuko zutela pentsatu dut, baina segituan kontraturatu naiz begiak bere bularren dantzan mugitzen zaizkidalda: gora, behera, eskuinera... Bi titi handi besterik ez ditut ikusten orain. Telebistako saioak ez dauka misterio handirik; *Call show* hauetako bat da, bost letrako fruta bat asmatu behar da, "M\_LON". Deiak bata bestearen atzetik entzuten dira baina inork ez du asmatzen. "A ze meloi-buru koadrila" atera zait barrenetik, ilehoriaren meloi dantzari arretarik kendu gabe. Kontraturatu baino lehen telefonoa esku artean daukat, eta hatzek arin markatu dituzte pantailan dirdirka dabilzan zenbakiak.



Plazako erlojuaren kanpai-hotsak ekarri nau berriro lurrera. Nire burua neska titi handiari deika ikustean sekulako nazka sentitu dut, telefonoa sofaren beste muturrera bota eta telebista itzali dut. Ez dakit zer esango lukeen nire lagun Freudek, baina bai nire amak: “gero eta errazagoa da burua erabili gabe bizitzea, horregatik galtzen duzuenean ez zarete konturatzen”.

Telebista itzalita bakar- bakarrik gelditu naiz, ohera joateko beldur, telebista pizteko ikaraz; inoiz ez nuen pentsatuko lanerako ordua iristeko gogoia izango nuenik, neure nahiak amatatu eta besteren aginduak pentsatu gabe betetzeko desioa, ordu batzuetan behintzat ni izateari utzi eta nomina bat izatekoa, baina oraindik lau ordu luze banantzen naute lan mekanikoaren paradisutik.

Subkontzienteari ihesi, logelatik egongelara, eta, azkenik, sukaldera erbesteratua; hozkailuaren parean nago, atea irekita.

“Mokadu on batek dena konpontzen du” esan neure buruari, eta ludopatak azken txanponarengan duen esperantza berarekin hasi naiz gauzak ateratzen: gurina, marmelada, txokolatezko pastela... Sekulako azukre oturuntza prestatu dut amen batean, eta abiadura berean jan dut behar baino hiru aldiz gehiago.

Betekada ikaragarria daukat, eta urduri jartzen nau neure buruarengan dudak kontrol eskasak. Amorraturik mahaiko apur eta zakarrak jaso, hortzak garbitu, eta subkontzientearen beldurrik gabe ohera sartu naiz, oihana zeharkatzera doan Rambo pijamaduna bezala.

Goizean izerditan blai esnatu naiz; Guardia Zibil batekin egin dut amets, eta gustatu egin zait. Tri-kornioa zeraman jantzita, eta nire meloi handiekin egiten nizkion kilimak pastel itxurako ohe batean. Baina lasai nago, lanerako ordua baita, eta han ez zaizkio inori axola nire amets edo amesgaiztoak, ezta niri ere.

**Odei Arregi**



# Idatzi beharraz

Udaberria sartu berritan, Donostian ospatu da aurten Euskal Idazleen Elkartearen urteko Batzar Orokorra. Ekitaldiaren amaieran, urtero egiten den moduan, omenaldia egin zaie 2011n zendutako bazkideei.

Bada, horietako izen bat ekarri nahi izan dut lerro hauetara. Hain zuzen ere, Xabier Gereñorena. Batzuek esana dute bere gaiak eta hariak sinpleak zirela bere idazlanetan, baina ezin da ahaztu bere helburuetariko bat izan zela euskal irakurlegoa ugaltzea. Horregatik, -edo horretara-, zuzendua izan zuen bere ibilbide oparoa, eta horren berri eman zigun Laura Mintegik, langile nekaezin baten biografiako hainbat pasarte aipatuz.

Esan zituen gauzen artean ordea, batek bereganatu zuen nire arreta: Gereñok nahiago zuela gaztelaniaz idatzi euskaraz baino. Nola da posible euskaraz egindako lan mardula ikusita? Zergatik ekin zion hainbat urtez euskaraz idazteari?

Laura Mintegiren hitzetan «horrela egin behar zelako»; alegia, garaian garaiko egoera politikoa ikusita, eta euskararen iraupenaren mesedetan, bete beharreko inperatiboa izan zelako berarentzat. Abiapuntu horretatik sortutako pentsamendu horrek eraman ninduen ondorioztatzerara, nahimen indibidualetik harago, ontasun kolektibora jauzi kualitatibo bat zegoela bere jarreraren. Edo beste era batera agertuz, esango nuke berea erabaki etikoa izan zela, etika ororen ezaugarria baita 'egin behar'

horren kontzientzia, normalean konpromisotik eta koherentziatik eratorritako erabaketan islatzen dena.

Preseski, hori bat dator, azken bolada honetan buruan darabilkidan ideiarekin, non idazleak bizi duen testuinguruarekiko erantzukizunez jokatu behar duen. Eta ezaugarri hori presente dago Gereñoren jarreraren; ez bakarrik berean noski, baita egun desagertzen ari diren hainbat idazlerengan ere: Txillardegi, Kapanaga edota Arana Martixa, besteak beste. Beren erantzukizuna belaunaldi baten ezaugarria izan dela esango nuke, giltzarri suertatu dena kulturaren sorkuntzan eta eraikuntzan. Nola ulertu bestela hizkuntza aurrera ateratzeko emaniko esfortzuak, ezinbesteko eskuzabaltasun hori gabe?

Idatzi beharra dago, dudarik gabe, izan zirenen eta izango direnen artean zubiak eraikitzeko. Gure aurrekoek ereindakoa bizirik mantentzeko. Haiak egindako ahaleginak alferrik gal ez daitezten.

# Ez bankari, ez anarkista

Gaur ere berdin. Gaueko 21:45 inguruan, gaueroko zereginetan: batak zabor-poltsak edukiontzietara, besteak kartoitzarrak edukiontzietatik; elkar agurtu eta nor bere etxera. Ni bitartean lehiotik, ekidistantzian. *Bata* ezkondua, bi senideren ama –neska eta mutila, itunpeko ikastetxe erlijiosora doazenak–, zuzenbidean lizentziaduna eta epaitegietako funtzionarioa; larri zebilen atzo goizean, autobusa galdu, eta lanera berandu iritsiko ote zen beldurrez, etxe-kaleratze bat omen zeukan, ezin berandu iritsi. *Bestea* ezkondua eta hiru senideren aita... garai batean, enpresa familiar baten oinordea... garai batean. Duintasun kontua dela dio, ez ziokeela *justiziari* sekula bera etxetik botatzeko aukera emango, horregatik alde egin zuela eta, are gehiago, aterpea ukatu zioten horiengan beraiengan aurkitu duela orain babes, kutxazainen epeltasun digitalan eta bideokameraren begirada kuxkuxeropean bizirautea hautatu zuela.

Agertoki aparta amaiera odoltsuko film labur baterako: gaueko ilunpea hiltzailearen babesle, zaborrak eta edukiontzia gorpuzkien gordeleku... *Bata* eta *Bestea* protagonistak, erasotzailea eta erasotua hurrenez hurren, edo alderantziz... Eta dramatismoa biziagotu nahi izanez gero, haurrak sartu tartean, edonon... Gidoia zertzelatzen hasiko nintzateke, horri guztiari fikzio zantzurik aurkituko banio. Ordea, eguneroko errealtatea da, eta duela ia mende bat ere errealtateak antzekoa behar zuen, Fernando Pessoa *O banqueiro anarquista* idatzi zuenerako.

Portugaldarraren lanak jendarteak pairatzen dituen bigabekeriaren eragileak identifikatzen ditu, eta bere burua anarkistatzat duen bankari, tratulari eta estraperlistaren ahotik azaltzen du zein den gaitzari aurre egiteko bidea: anarkismoa. Gizateriaren askatasuna lortuko bada, sistema burgesak betikotu dituen fikzio eta konbentzio sozialak –estatua, erlijioa, familia, diruamendean hartu beharra aldarrikatzen du, ez zuzeneko borrokaz, ez beraien eragin-eremutik alde eginez, gaindituz baizik.

Zalantzarik gabe Pessoiari adibide egokiak zitzaizkiokeen gure *Bata* eta gure *Bestea*. *Bata* zatekeen jendartearen fikzio eta konbentzioetan bete-bete harrapatuta dagoenaren eredu, sistema burgesera guztiz moldatu eta ohitutakoa. *Bestea* zatekeen anarkista inozoa, fikzio sozialak gainditzeko adorerik ez, eta ihes egiten diena; alegia, diruaren eragin-eremura makurtu ez, baina mendean hartzeko ganora izan ez duena.



Bataz eta besteaz dago osatuta gure jendartea, ekonomiak agintzen du aldi-aldi zein proportziotan. Estatistikak *Bestearen* kurba loditzen doaz egunetik egunera, eta hedabideak egoeraren gordina probesten. Krisia hasi zenetik, 2007ko ekainetik, Hego Euskal Herrian 7.000 lagun kaleratu dituzte, beraz, ustezko 7.000 drama haizagarri: bikotea bananduta badago hobe, nahiago izaten da beti zazpi senideko familia bostekoa baino, beharrezkoa elbarriren bat edo hil-hurrenen bat egotea... Orain ari gara ikusten *Baten* eta *Besteen* esparruen arteko muga zenbateraino den malgua eta, horrelakoak entzutean, nahi gabe bezala, kalkulatzeko hasten gara gu horiengandik zenbatera gauden, ondoren, nolabaiteko lasaitu urduriaz sorbaldak biltzen bukatzeko. Ba al da ba beste aukerarik?

Baiezkoan zeuden maiatzaren 15ean egoera politiko, ekonomiko eta soziala aldarazteko ahaleginean Madrilgo Puerta del Solen kanpatu zuten herritar suminduak, eta baiezkoan diraute azaroaren 20ko bezperan plaza horretan bertan bildu zirenek ere... gutxiago, baina. Ekimena jaio zenetik izan dira heriotz goiztiarra iragarri dioten ahotsak, hamaika arrazoitan oinarrituta aurreikusi dute mugimenduaren akabera. Pentsako irudi batek eman dit niri zer pentsatua: kontzentrazio horietako batean bi gazte, IKEAko poltsa bana buruan eurtik babesteko, iPhone bana eskuetan boto-asmoen inkesten emaitzak ezagutzeko. *Bataren* ondorengoak, akaso...

Eta ni bitartean leihoan, gauaren beltzean ekidistantziaren zurikeriatik munduari begira.

Irene Gil Legarra

# Dana eman biar yako matte dan azkatasunari

*Jaingoikuaren aurrean apalik,  
Euzko-lur ganian zutunik,  
Asabearen gomutaz,  
Gernika'ko zuaizpian  
Nere aginduba ondo betetzia  
Zin dagit.*

**Bilbo'n, 1937'ko bagillaren 19'an.**

## **Etorkizuneko Euzko Jaurlaritza demokratikoko Lendakari Jauna, agur:**

Zeure buruari galdetuko deutzazu zertako idazten deutzudazan berbok. Bada, ene gutun au topeteko zoria euki badozu, bejondeizula. Errazoimena ta Jaungoiko Onaren guraria fanatismoari gallendu jakozan señaile. Ez dakit noiz, ez dakit non, ezta zer egoeretan be leiduko dozun ene gutuna, leiduko dozunik be. Benetan gertautakoa ezetu daizun idazten deutzut, Jaurlaritza dogun Carlton hotelean ezkutauta, gaurko egunean, Franco'ren tropak Burdiñazko Garrikoa gaingitu ta uriburuan sartu diran egunean. Ene bizia be arriskuan dago, ezin jakin amendik urteteko denporerik be eukingo ete dodan, baña ene eginbearra da etorkizuneko belaunaldiak bear bezala informetea: nonork irabazita be, geure istoria, galtzalleon istoria, etorkizunean be ezetu daiten. Orretarako, galtzalleon bertsioa zeuri allegatutea bear-bearrezkoa dot.

Bada, Valentzia'n Euzkadi'ko autonomia-estatutua onartu eben gerra asi ta gitxira, urri bigarren; baña, aundiustea zalakoan, eskumenak erabat murriztuta. Besteak beste, Napparroa kendu euskuen, baita aurrerantzean Napparroa Euzkadi'n sartuteko aukerea be. Orregaz jarraitukiro, urri bigarrenak 7 eukazanean Euzko Jaurlaritza'ko Lendakari izentau ninduen, ta egoitzea Carlton hotelean imiñi. Bereala lortu genduan errialde independente lez jardutea: unibersidadea, telebista-irratia sistema, armada, osasun-sistema ta moneda genduzan, ta pasa-

porteak be egiten genduzan, naizta España'ko Errepublikari une oro leial izan.

Igazko urriaren 13an, Donostia erortean, igerri genduan zer etorkigun. Frantzia'ko Fronte Popularrak guri lagunduteari itxi eutsen, ta anarkista ta sozialisten arteko liskarra gitxigatik geldiarazo genduan Bilboko kaleetan. Itxaropen izpirik be eukin genduan, ostera: Intxorta'n faxistak geldiarazotea lortu genduan, Bergara gaingitu ta Durango'rantz etozala, Beldarrain komandanteari esker. Baña ez eban luze iraun, Sanandere'ko anarkistak bereala bakarrik itxi ginduezalako, besteak beste.

Baña batez be, lagun, jaramonik ez egin etsaien propagandari: jorrallaren 26an Gernika maitea ez genduan geuk suntsitu. Zelan leiteke! Eskerrak Steer jauna ta gañerako kazetariak bertan zirala, egia ezetu daiten. Antza danez, gainera, jorralleon mundu zibilizatuari egin neutson didarrari, etsaiak gerarazoten saia eitezana, errazoimenari leku egin egioezan, ez deuto inork erantzun. Ta guk, noski, makalluntziak ta atunontziak gerraontzi biurtuta, ezin izan dogu ezer askorik egin etsaiaren indarraren kontra.

Ta zelan allegatu garan egoera onetara... Alejandro Goikoetxeak, Burdinazko Garrikoa eregiarazo eban ingeniari traidoreak, emon eutsien informaziño guztia etsaiei. Bagillaren 4an Bilbo bonbardau eben, ta guk zubi guztiak suntsitu, baña Ezkerraldeko industria suntsiduten, ostera, ez giñan ausartu. Izan be, etorkizuneko Euzkadi'k be bizi bear dau, izan faxisten menpe ala Errepublikaren menpe!

Ori guztiori gitxi balitz, Lauaxeta, Aitzol ta beste ainbat kultura-gizon be fusilarazo ditue etsaiak. Frantzia aldean, naziak Lluís Companys Katalunia'ko Lendakaria atzemon, Franco'ren soldaduei emon, ta Montjuïc'en bertan fusilarazo eben. Katolikuak katolikuak erailten, Jainkoaren izenean, ta bien bitartean Vatikanoa isillik! Eromena!

Eskerrak erritarrak dauela egun batzuk urtenarazo genduzala Bilbo'tik! Baiona, Ingalaterra, Errusia, Amerika... munduko leku guztietara bialdu doguz Euzko semeak. Atzo Euzko Gudaroste'ko azken gudariak Bilbo'tik Kantabria aldera jo eben, ta gaur eguerdian etsaiak Artxandatik jeitsi ta Bilbo artu dabe. Katalunia aldera burrukara joatea neban asmoa, baña bidea zarratuta dagoala esan deuste. Nonon dekoguz etsaiak!

Beraz, etorkizuneko Lendakari Jauna, orain badakizu egiaz Euzkadi'n zer gertau dan, 1936'ko garralleon Nazionalak matxinatu ziranetik Bilbo erori dan egunerrate, bederen. Ta orain banoie Kantabria aldera, ondiño itxaropena ez dogu galdu-ta. Baña, egiaz, zer egin bear dogu Kantabria'n? Euzkadi galdu ostean, ezerk ez deko sentidurik, atzerriko lurren alde burrukan jarraitutea lakoa da. Kantabria atzerria baita...

Askatasuna, ostera, ondare unibersala izan da ta izango da. Orrek lagunduten deust burrukan jarraituten. Lauaxeta lagunari omen egiñez: «Dana emon biar yako matte dan azkatasunari».

Agur t'erdi,

**Agirre ta Lekube'tar Joseba Andoni**

**Adriano De Mata**

# Isiltasunaren zaindaria

**A**spaldian, urruneko lurralde batean, bazen liburutegi bat. Liburutegi handia zen, handi-handia, erraldoia. Zeruraino iristen ziren apalategiak, kilometroak eta kilometroak luze ziren karrajuak. Mota guztietako liburuak zeuden, zaharrak, berriak, handiak, txikiak, abenturazkoak, maitasunezkoak, misteriozkoak... Gainera, kontatu didatenek ondo ulertu bazuten, eta haiei esan zietenak oker ez bazeuden, liburutegian iturri handia ere bazegoen. Iturriko ura, eguzki-izpien arte-  
tik igarotzean, udamineko egun sargoritsueta, oso berotzen zen.

Behingo hartan, liburutegian zen Salim izeneko mutikoa. Kanpoan bero handiegia egiten zuelako, freskatzeko asmoz sartu ei zen. Udako opor berotan eliz eta museoetara sartzan garenean bezala. Salim liburu arte-  
tik ibiltzen hasi zen, alde batera eta bestera begira, liluratuta. Han-hemenka jendea zegoen, liburu bila-  
edo. Halako batean mahaia ikusi zuen, eta inguruan jendea jesarrita, erre eta erre. Hitz egiten ari ziren, ozen, oihuka ere bazebiltzala esango dut. Zalaparta ikaragarria zen. Salim mahaira hurbildu, aulki librea aurkitu eta eseri egin zen. Bazirudien besteak konturatu ere ez zirela egin. Esaten zutena ulertu nahian zebilen Salim, baina guztiek kentzen zioten hitza elkarri, eta ezin ezer ulertu, hau baino ez, doi-  
doi.

—Ados, goazen orduan. Kokoteraino nago, honek amaitu behar du—. Guztiak altxatu eta liburutegiko karrajuetatik ibiltzeari ekin zioten. Salimek oraindik ez zekien nora zihoazen baina, jakin-minak hartuta, laguntzea erabaki zuen.

Karrajuotan argia ezberdina zen, apalagoa; isiltasuna, hontzagoa. Jen-

dea urduritzen hasia zen. Begiradak trukutzen zizuten, hitzik ez; bazirudien behartuta egiten zutela aurrera. Halako batean guztiak isildu ziren. Arnasa hartzeari utzi. Bihotz taupadak azkartu. Liburutegiko alderdi arriskutsuan zeuden, Salimek argi zuen. Ez baitzen liburuzaina begira zutena, haienganantz zetorrena. *Liburuzainek ez baitute beldurrik ematen, pentsatu zuen Salimek; tira, ume guztiak bezala, kalera ateratzean elastikoaren azpian ezkutatzen dugun liburuaz ohartuko ote diren beldur garenean izan ezik...* Baina une hartan inork ez zeraman libururik elastikopean. Eta liburuzainik ez zetorren haienganantz, ez. Tigrea bai, ostera. Jendeak xuxurlatzeari ekin zion, tigreak entzuten ez zituela-  
koan. *Batez ere, begietara ez begiratu!*, esan zuen baten batek, eta guztiek apalategietan bilatzeri ekin zioten. Salim izan ezik. Ezin sinetsirik zebilen, zur eta lur. *Horrelako une batean liburu bila?* Beranduegi ulertu zuen zergatik: tigreak beste inor ez balego bezala egin zuen; zuzen-zuzen zetorren Salimengana. Begietara ez, begietara ez!, entzuten zuen inguruan; baina ezin zion eutsi. Tigreari begira zego-



en, aho zabalik, harrituta. Hala ere, bazekien zer egin behar zuen arriskutik ihes egiteko. Tigrea Salimengana iritsi zenean, bat-batean gelditu egin zen. «Egin ezazu hildakoarena!» oihu egin zion norbaitek. Esan eta egin.

Begiak irekitzean, baina, tigreak bertan jarraitzen zuen, begiak itxi zituenean lez. Ezin zuen bizitza osoa hildakoarena egiten eman. Beraz, kontu handiz, altxatu eta ibiltzeari ekin zion, normal-normal, tigrerik ez balego bezala. Baina urduri, oso urduri. Tigrea ez zen mugitzen, eta azkenerako aztarna galarazi ziola ere ematen zuen. Poliki-poliki, jendea hasieran ikusitako tokira iritsi zen Salim. Berriz ere hantxe zeuden, elkarrekin hizketan, liburutegira iritsi zenean legez. Salim ikustean, tigrea etorritz gero iturrian sartu behar zuela esan zioten, ur beroak tigrea urrunaraziko baitzuen. Eta

hitzok tigrea erakarri izan balute bezala, bertan agertu zen. Baina jendeak, Salimekin batera iturrian sar-

tu ordez, karrajuetarantz alde egin zuen. «Ostera bakarrik!» Denborarik galdu gabe, iturrian sartu zen Salim.

Orduan, tigrea iturriraino joan eta, ustekabea, eskua jarri zuen ertzean... gero beste eskua... eta iturrira egin zuen jauzi! *Liburutegi osoan beste inor ez balego, tira! Zergatik ez ote nau bakean uzten, baina?* Konturazterako, elkarren ondoan zeuden. Eta, halako batean, zelan jakin barik, berbetan hasi ziren. Are harrigarriagoa, elkarri ulertzen zioten! Ur berotan elkarrekin egoteak eman ote zion Salimi tigreraz hitz egiteko ahalmena? Horrexek behar zuen, ordu-

tik aurre-

ra, antza denez, Salimek tigreekin topo egitean, keinu bidez ulertu behar izan zutelako elkar, ez baitzen berriz tigreraz egiteko gai izan. Baina jarrai dezadan gertatutakoa kontatzen, bestela ahaztu egingo dut-eta.

Iturri barruan zeuden biak, beraz. Tigreak, orduan, Salimi esan zion iskanbila harekin ezin zuela atsedetik hartu, ez zela posible, egunero gauza bera gertatzen zela. Gustura zebilela liburuzain, baina lasaitasuna behar zuela. Eta gainera, jende horrek atsedetik gabe erretzen zuela! Salimi eskatu zion, esateko, mesedez, egunero mahaian eztabaidan zebiltzan gizon-emakumeei isil zitezen, erretzeari utz ziezaioten, bestela alde egingo zuela, eta liburutegia kanpoko bidelapur eta gaizkileen esku geratu. Saiatu zela maiz mahaiko haiekin hitz egiten, baina ikusi bezain laster denek alde egiten zutela.

Solasalditxo amaitutakoan, biok batera irten ziren iturritik. Gizon-emakumeak urrun zeuden, apalategietan interes guztia jarrita, antza. Tigrea etorritako bidetik joan zen; Salimek, jendeari hurbiltzeko keinua egin eta tigreekin hitz egindakoa azaldu zien.

—Ados, liburutegira etortzean isilik egongo gara, tigrea ez aztoratzearen —esan zuen batek.

—Ba ni ez nago ados —beste batek—. Hona natorrenean berbetan eta erretzen eta gauza garrantzitsuez eztabaidatzen hasiko naiz lagunekin. Bestela, non elkartuko gara, kanpoan horren bero handia egiten badu?

—Hitz egin, erre eta eztabaidatu nahi izanez gero, joan zaitezte beste leku batera, tigreak liburutegia zaintzen jarrai dezala nahi baitugu guk —eztabaida poliki-poliki ari zen berotzen—. Ea, nork uste du tigreak hementxe jarraitu behar duela, eta zalapartariak alde egin?

Bozkatu egin zuten, eta zalapartaren aldekoak gutxiengo zirenez, amore eman eta kanpora joan beste aukerarik ez zuten izan. Amorruren amorruez, eta bakean eztabaidatzen jarraitzeko, tabernak sortu zituzten, eta bertan biltzeari ekin. Horregatik izaten da, egun, horren zalaparta handia tabernetan, jendea hizketan, oihuka ia, erretzen; liburutegietan, aldiz, isiltasuna da nagusi. Eta horregatik gordetzen dituzte, gaur egun ere, altxorrik preziatuenak liburutegietan: tigreek ezin hobeto zaintzen dituztelako.

Adriano De Mata

# Negarritia

**Kalera, kale gorrira.** Bai, kaleratu egin naute, lanik gabe gelditu naiz. Krisiak gogor astindu du gure herria azkenaldian. Jende asko kale-ratu dute, lana falta omen da, dirurik ez ei dago. Halako kontuak sarri izan ditugu hizpide azkenaldian. Hala ere, inoiz ez dugu uste izaten gu egoera berean izango garerik eta nik, gaur arte, ez dut halako atakan egon nintzakeenik imajinatu ere egin. Hala ere, nire kasuak ez dakit krisiarekin harremanik duen... nondik nora iritsi naiz ni egoera honetara?

Gaur goizean, egunero bezala, altxatu eta nire nespresso makinari ura aldatu diot. Ura bere tokian jarri eta kafetera piztea, biak izan dira bat. Ederki hartuta diot goizari tamaina eta hegan joaten naiz batetik bestera, sukaldetik komunera, komunetik logelara, logelatik sukaldera buelta... Baina gaur, ezusteko gazia izan dut goizeroko errituan: hozkailua ireki eta ez zen esne kaxarik. Urrea bezain balioitsu ditudan segundo batzuk galdu eta esne kaxa baten bila joan naiz armairura, baina, han ere, ez zen esnerik ageri.

Kafe huts eta beltza hartu beste aukerarik ez dut izan. Behin kafea hartuta, lanean gose izango nintzen beldur, banana bat jatea erabaki dut. Une hori bera izan da nire arazo guztien abiapuntua. Banana jan ostean, lehor-lehor nabaritu dut eztarria. Bananak ez dit batere onik egin. Aho-zapore eskasa ekiditeko edo, ur basokada ederra ahoratu dut. Hala ere, ura ez da nahikoa izan, hori aho lehorra nuena! Hortzak garbitu ditut segidan, ohi baino dezente lehenago, bai nire eguneroko arrosario kronologikoan behintzat. Amaitzean, ordea, ez dut

lasaitasunik nabaritu, ezinegona eta zapore eskasa hasi zaizkit zabalitzen, bai ahoan, bai gainerako gorputz ataletan ere (sabelaldean batez ere). Zerbait egin behar nuen goizeko tristeziari aurre egiteko eta beste kafe bat hartzea erabaki dut. Gehiegi pentsatu gabe, beste kafe bat prestatu eta hurrupa bakarrean irentsi dut, zurrutada gozo eta aldi berean mingotsean. Deskafainatua hartu izan banu sikiera... baina ez, nik ristreto hartu dut (goizeko bigarrena), aukeran neukan kaferik gogorrena.

Ziztu bizian iritsi naiz lanera, berandu antzean nindoalako edo kafea bere lana egiten ari zelako, batek daki. Lanean hasi naizenean puztu da arazoa. Nik lan egin nahi nuen baina gorputzak ez zidan erantzuten. Kirioak dantzan nituen, kirioak, behatzak eta baita belarri gaina ere. Jarrera hori ez da bate-re egokia makina aurrean makinaren gisan aritu behar duenarentzat, baina, zer egin nezakeen nik?

Esnea eta kafea nituen gogoan, haiek korapilatu baitidate eguna. Une horretan bertan, oraindik ere lanean jarri nahian nenbilela, nagusi bi-bote-luze zikin jauna agertu da. Zorrotz begiratu nau, sututa, aurretik ere niri begira aritu izan balitz bezala. Bere bulegora joan nendin eskatu dit, gauza onik iragarri ezin duen ahots tonu zakarrarekin.

Bulegoan dena azkar-azkarra izan da. Eta kaleratu egin nau. KALE-RA. Popatik hartzera. Parean nengoen baina ez zuen nirekin hitz egin nahi. Buruan ilerik ez zuen gizon nazkagarriak ez zuen nirekin hitz egin nahi eta segituan kalera joateko agindu dit. Eta ni, ka-

lera. Zergatik? Ordurako ez nintzen bere langilea... zergatik ez diot erantzun? Zergatik geratu naiz halako tuntun aurpegiarekin?

Eta orain, lanik gabe nago. Lepoa egingo nuke esne faltak eta kafe gaindosiak izan dutela zerikusirik. Bai, ziur nago. Bietakoren bat azpimarratu behar izango banu, hala ere, esne faltari egotziko nioke erruaren zatirik handiena. Zergatik ez zen esnerik etxean? Ai ama! Jonek esnea amaitu zuen atzo. Akabatu du! Jonek negarritia dauka. Orain dela hiru hilabete esan ziguten ospitalean. Atzo arratsalde gogorra izan

zuen eta ziur bera izan dela. Negar-krisia duenean beti ibiltzen da antzera. Baina atzokoa gehiegizkoa izan zen, esnerik gabe utzi ninduen.

Sendagileek esan ziguten krisi horietan garrantzitsua zela edatea, deshidratazioa saihestu behar baita. Urarekin aspertu eta beste zerbait edaten du maiz. Nik beti egiten diot errieta: ez alkoholik hartu, ez duzu gozatuko eta mozkortuko zara! Ez edari gasdunik hartu, gizenduko zara! Eta Jonek esnea

# Zoritxarreko ikuspena

edan zuen atzo. Baina horrek justifikatzen al du tetrabrik osoa edan izana? Edota kaxa guztiak edatea?

Gorroto ditut gaixotasun arrarorak. Negar-krisiak... baina zer da hori? Noiztik hainbeste negar egiten duen pertsona alboan? Beneran, oso latza da askotan. Hori bai, ez dakit egarriarena harrigarriagoa ez den... ezin dut horrekin! Itoko den beldurrez egoten naiz ni eta, Jon, bien bitartean, malkoa malkoaren atzetik eta eztarria zabalik, dzanga-dzanga, etxeko erreserba guztiakin zein urtegi guztietako urarekin bukatu nahian.

Atzo arratsalde eroa eduki nuen. Jon dago negarritiak jota baina haren krisialdi guztiak jasan behar izaten ditut nik ere. Gaur, gainera, bere gaixotasuna-edo dela eta lanik gabe gelditu naiz. Baina, nola liteke? Zer egingo dut orain? Zer egingo dugu?

Goiza ezustekoz josita hasi dut. Egun guztiak ez dira berdinak, batzuetan lozorroan geratu behar genuke, loak eraman bagintu bezala. Orain ni naiz malkotan dagoena, etxera itzultzeko indarrik gabe. Nire malkoak, alabaina, bestelakoak dira oso. Azkenaldian nire egin ditudan bi hitzekin lotura estua dute, krisiarekin eta negararekin. Hori bai, bestelako egoera batean nago ni, krisiaren mehatxupean eta malkoz blai egonda ere.

**Miryan Irastorza**

Maleta egiten amaitu zuenerako, kaleak hezetzen hasiak ziren zirimiri leunaren eraginez. Tren geltokirantz abiatu zen artegatasun eta beldurrez josirik. Pariseko lagunarekin egoteko ideiak zirrarez bete zuen, baina gau hartan zerbait ezatsegina gertatuko zen sentsazioa ezin zuen alde batera utzi. Taxian zihoala, poltsikoan zuen trenen ordutegiari begiradaxoa bota, eta zortzietako trena hartzeko garaiz zela konturatu zen. Beraz, geltokiaren inguruko dendak ikusteko denbora izateak, bihotza apur bat poztu zion.

Pasieran zebilela, eskale bat begietsi zuen, arratsalde guztiak suaren beroa gozatuz, geltoki ondoan igarotzen zituena. Eskaleari hurbildu eta bigarren nasako trena Pariseranzko zortzietakoa zenetz galdetu zion. Gizonak burua handikiro astindu eta "Bai, bada. Baina hobe duzu tren hori ez hartzea. Bart hemen eserita nengoela, amesgaizto bat izan dut. Bertan, tren suntsitu bat ikusi dut. Istripu bat izana da, eta bidaiari guztiak hilak daude. Eta badakit gaurko zortzietako trena dela", esan zuen.

Neskak, oso superstiziosooa zenez, hurrengo trenari itxarotea erabaki zuen, guztiz ibilbide ezberdina egiten zuelako. Bidaia luzea zen, baina neskak ezin izan zuen ia begirik bildu. Ametsetan aritu zen, eta bere burua itsasontzi batean ikusi zuen, itsaso basati baten erdian. Mendiak bezain altuak ziren olatuek itsasontzia alde batetik bestera bortizki mugitzen zuten eta, azkenean, harkaitz batekin talka egin eta ur azpian desagertu zen.

Hurrengo goizean, Parisera iritsi orduko, nahiko zorabiatuta sentitzen zen. Geltokian bertan jakin zuen eskaleak arrazoi zuela; izan ere, zortziretako trenak istripua izan, eta bidaiari guztiak hil ziren. Zer esan ez zekiela, bihotza uzkurto izan baliote bezala igaro zituen oporrak, egonaldia gozatu ezinda.

Etxera itzultzean, eskalearen bila joan zen gertaerari buruz hitz egiteko, baina ez zuen betiko lekuan aurkitu. Geltokiko langileei galdegin, eta esan zioten eskalea hil egin zela, zortzietako trenak harrapatuta.

**Lide Iparragirre Mercero**



# Hogei zimir lehenak

**Ez zuen drama ikaragarririk sortu nahi izan, eta ez zuen drama ikaragarririk sortu.**


Pixkatxo bat baino ez, eta berak bakarrik entzun zituen aho barrunbeak dardara batean jarri zizkion oihu burrunbatsu haiek; gehienez ere kotxe zahar haren paretetara zabalduko zirenak. Edo, agian, kanpotik begiratuta behintzat, lasai asko zegoela emango zuen, irribarre eta guzti, irudizko oihuak kaskezurreko pareten artean etengabeko talkan zebilzkion bitartean. Edo beharbada zoriontsu sentituko zen. Baina, halako edo holako, ez zuen drama ikaragarririk sortu, ez.

Ez zuen drama ikaragarririk sortu inoiz eta ez zuen inoiz ere sortuko. Ez, behintzat, besteen begien aurrean, ondo baitzuen ikasita zainek gainez eginda ere nolakoa behar zuen izan, nolako jarrera agertu behar zuen. Oso esanekoa, emakume apala eta otzana baitzen Brigita; emazte eta ama ezin hobea, beraz.

Drama ikaragarririk ez, mesedez. Eskerrik asko.

Hala ere, ez zuen askotan entzun in gurukoen esker onik, ezta ama hil zitzaionez geroztik anai-arreben zaintza beregain hartu zuenean ere; ez eta hamabi urte izan arren, inolako drama ikaragarririk sortu gabe eskola alboratu eta zama-lan hura onartu zuenean ere. Urteen joan etorriek, gainera, eskerrak jasotzeko esperantza murriztu zioten.

Burua gainezka baina egunero egiten zuen bezala, goiz hotz hartan ere kotxe zahar hartan zihoan Brigita, bakarrik, bizitza aldatuko zion erabakia hartu zuenean. Eta isil-isilik, drama ikaragarririk sortu gabe



ekin beharko zion.

Anai-arreben zaintza senarraren zaintzak ordezkatu zuen hamazortzi urte bete zituenean, eta aurpegiko hamahirugarren zimurra atera zion gertaera honek. Izan ere, etxe-koandre eta ama rola hartutakoan atera zitzaion lehen zimurra, ezkerreko begi azpian hain juxtu, esan bezala hamabi urte eskas baino ez zituenean eta, urtetik urtera, ugari-tuz joan zitzaizkion aurpegiko edozein txoko konkistatuz. Ezkerreko begi azpikoa izan bazen lehena, eskuineko begi azpian atera zitzaizkion hurrengo biak; begien artean beste hiru, kopetan beste bat, bekokian beste lau, ezkerreko masailean bat eta eskuinekoan beste bat. Ezkerreko begi azpian agertu zitzaion hamahirugarrena, lehenengoaren ondo-ondoan, eta eskarmentu handiko etxe-koandrea zen ordurako Brigita.

Ezkondu eta sei hilabetera jaio zen Brigitaren eta Foster jaunaren lehen haurra, Nikola. Ez zen, ordea, maitasun apasionatu horietako baten fruitu izan, bortxatu egin baitzuen Foster jaunak Brigita, disimuluz agian, astean behin garbitzen zuelako Brigitak Foster familiaren etxea. Eta berea zela pentsatuko zuen Foster gazteak, bere gaineko eskubidea zuela, bai behintzat bere gainean etzan zenean. Haurdunaldi lotsa-

garri hari aurre egiteko ezkonduko zen beharbada Brigita bortxatu zuen gizonarekin, erantzukizuna berea ere bazen eta gizonaren esanetan, halako begirada, bestelako irribarre, eta men egin zien azkenean ezkontza eskari amaigabe haiei.

Baina ez zuen sekula ere drama ikaragarririk sortu, are gutxiago izan zuen ezkontza zoragarri haren ostean.

Hamaseigarren zimurra atera zion Nikolaren jaiotzak Brigitari –hamalagarrena haurdunaldian zehar agertu zen, harengatik edo honengatik, eta Foster jaunaren galtzontzilo zikinak garbitu zituen batean hamabosgarrena-, maitasunik sentiarazi ez zion amatasun amaiezin batean murgilduta ikusi zuelako bere burua. Gainera, Foster jaunak asmo onez erosten zizkion punta-puntako arropa-garbigailuekin, irabiagailuekin, labeekin, izozkailu eta hozkailuekin, su-plakekin, xurgagailuekin, kristal-garbigarri, mopa, erratz eta trapuekin uztartu behar zuen umearen zaintza. Hamazazpigarren, hamazortzigarren, hemezortzigarren eta hogeigarren zimurrak agertu ziren oso denbora gutxian.

Kotxean zihoan astearte goiz hartan Brigita, etxerako bidean berez, buruari bueltaka eta bueltaka, garrasika akaso, bat-batean norabidea aldatu eta bestelako bide bat hartu zuenean. Ez zuen, ez, kontu harekin jarraitzeko inolako asmorik. Eta ekintzarako prest agertu zen.

Nikola sortu eta gutxira jaio zen Alexandra, hau ere Foster jaunaren nahia izan zena, eta ez ziren handik denbora askora jaio Maria eta Madale-



# Isiltasun beharrean

na biki hiperaktiboak. Poz-pozik bizi zen Foster jauna, nahiz eta bere gusturako alaba gehiegi izan; izan ere, semeak baitzituen nahiago, prestigio eta zentzu kontuak omen, eta horregatik kontsolatzen zuen bere burua Nikola semearekin. Brigitari, aldiz, berdin-berdin zitzaion seme zein alaba, txakur zein katu. Aurpegiko zimurrek, gainera, hartua zioten jada aurpegiko txoko, zulo eta kurba oro. Hogeita bi urteko emakume gazte baina guztiz zaharkitua zen ordurako Brigita, eta mahaspasa erraldoia bere aurpegia. Baina berak landare eder izan nahi zuen.

Otsaileko astearte goiz hartan ospitaletik bueltan zihoan Brigita, kotxez, gidabaimena ateratzeko baimena eman baitzion behin Foster jaunak Brigitari; dilistei, oilasko frijituei edota kalabazin kremei erretzeko betarik eman ez ziezaien umeak leku batetik bestera beti garaiz eramaten zituen bitartean. Eta zimurrek gorputza hartu zioten urte betean, ezagutezin bihurtzeraino. Ispilu aurreko mamua zen Brigita, mahaspasa baten mamu ikaragarria.

Ospitaletik bueltan zihoan beraz, oihuka edo isilik, berriz ere haurdun zegoela jakin ondoren. Eta ez zuen kontu harekin jarraitzeko inolako asmorik. Ekin beharra zuen eta horregatik hartu zuen eguneroko diziplina apurtu zion bidea, eta aske sentitu zen. Are askeago sentitu zen azeleragailua sakatu eta abiada bizia hartu zuenean kotxeak, baina askoz ere askeago eskuak bolantetik askatu zituenean.

Baina ez zuten mahaspasa erraldoririk topatu kotxe hondatu hartan, landare eder kolosal batek zeharkatu zuelako kotxea ezker-eskuin.

**Alaitz Andreu Eizagirre**

Arratsalde eguzkitsua da eta txoriak kantari ari dira etxe ondoko zuhaitzetan. Egunero bezala, txorien kantu hotsekin nahasten dira aitonaaren aulki zaharreko karranka hotsak. Zabuko sokek mugimenduaren igurtziekin ateratzen duten zaratarekin bat egin, eta betiko melodia sinfoniko gazi-gozoa sortuko da mutikoa eskolatik itzuli bezain laster.

Amari, berriz, lanbasak baldean sartzerakoan ateratzen duen melodiak garrazten dio barrena, are gehiago gurpil-aulkidunaren zarata entzuten duenean aldameneko gelan. Badaki hemendik gutxira lanbasa eta lurraren arteko zarata elizako abesbatzaren kantarik ederrena irudituko zaiola senarraren garrasiekin alderatuta. Semea etortzen denerrako ogitartekoa prest izan behar du, eta oraindik etxeko lanak amaitzeko daude.

Arratsaldeko bostak dira, eta dagoeneko betazalei eutsi ezinik dabil. Gaueko txanda zain du, gainera, eta zahar-etxeko Eliasek ez dio bakerik emango gau guztian. Gizona sukaldean sartu eta zalapartaka hasi da lurra bustita dagoela ikusita. Gurpilak nekezago mugitzen direla esan dio, eta eskuak ere busti egiten zaizkiola gurpilei eraginez. Amak hasperen sakona egin, eta gizonaren errehabilitazioko azken egunarekin amestu du, nazkatuta baitago bere purrustadak entzuteaz.

Bizikletaren katea entzun bezain laster konturatu da ama, mutikoaaren ogitartekoa oraindik egin gabe daukala. Kopeta zimurtu du mutikoak, eta lagunekin jolasera joateko presa daukanez, gailera batzuk hartu eta alde egin du, amari ogitartekorik eta musurik emateko tarterik utzi gabe.

Etiket irten baino lehen ama goiko pisura igo da, aitona arratsaldeko mokadutxo eramateko. Eskaileretan doala harritu egin da aulki kulunkariaren zaratarik ez entzuteaz. Gelako atera hurbildu denean, ordea, lasai hartu du arnas, aitona zurrunga hotsak entzun baititu. Barrura sartutakoan lo seko ikusi du aitona, eta amak manta bota dio gainetik, hoztu ez dadin. Lurretik jaso du aitona irakurtzen ari zen liburua, eta amonaren argazkia topatu du liburu barruan. Ez du esnatu nahi izan, eta ondoko mahaitxoan utzi dio jatekoa. Ondoren, lanera abiatu da, afaria prest dagoela ziurtatuta.

Goizeko seietan itzuli da etxera ama eta, nekearen nekeaz, etxe aurreko eskaileretan eseri da. Une batez ez du inongo zaratarik entzun: ez zurrungarik, ez zaburik, ez aulkien zaratarik, ez txorrotxiorik... Horrelaxe egon nahiko luke beti, isiltasun goxoaren magalean... Pentsamendu horrek bultzatuta, egur bila joan da etxetxora, eta pospoloak hartu ditu sukaldetik. Gurai zeak hartu, eta zabuko sokak moztu ditu. Pospoloekin su eman die egurrei eta sokari. Etxe barrura bidaia batzuk egin, eta trastez kargatuta itzuli da sutondora. Berriro eskaileretan eseri eta zabua, aitonaaren aulki kulunkaria, gurpildun aulkia, bizikleta eta lanbasa nola erretzen diren begira egon da. Arnasa sakon hartu du, aspaldi ez bezala, eta irribarrea atera zaio isiltasun hartan. Sugarren hotsa besterik ez du entzun denbora luzez, harik eta bizilagunen garrasiek isiltasuna hondatu duten arte.

**Maitane Legarreta  
Etxezarreta**

# Mendekua

**Semeak ekarri nau putetxe honetara. Mendekuz ari da.** Eta dena, ez diodalako sinatu nahi etxea berea dela. Gaizto ari da jokutzen, eta horregatik ekarri nau hona, emagalduen artera. Ez nekien, banik, emagalduek zuzendutako barne-tegiak zeudenik. Oso maitagarriak dira, gainera. Baina mendekua izan dela ezin ahaztu.

Halaxe eraman nuen neuk ere, hamabost urte egin zituenean, San Frantzisko kaleko "La Luna" taberna zulora. Ama etxean utzi genuen, hura ez baitzen emakume-entzako tokia.

Ezagunak nituen hango neskak. Noizean behin joaten nintzen... as-terero. Beltzaran brasildar ipurtandiar keinu egin nion, Joxebari, begi-ertzetik, begiratuaz.

Mutikoa harriturik zegoen, baina bizitzeko prestatzea nahi nuen. *-Melisa- esan nion, erdi gazteleraz, erdi portugesez, -bihurridan mutiko hau gizon-.*

Joxeba, nire atzean, erdi ezkutuan zegoen, hankak dardaraka. Txunditurik sumatu nuen, eta handik hamar minutura, eskaileratik jaitzi zenean, igarri nion, begiak horman galdurik, hanka zabalik, zakila gorriturik, minduta, jadanik ez zela ordura artekoa.

Eta gaur, hogeita hamar urte geroago, putetxe honetara nakar, nire gainbeheraz konturatu denean, izorra nadin.

Badatoz bi neska gazte. Besoetatik heldu naute. Ez diet entzun nahi, ziur asko lizunkeriak esaten ariko baitzaizkit. Zutitu nahi naute, baina ni geldi, menderakaitz. Eser-tzera noa. Indarra egiten ari naiz, beherantz. Sumatzen ditut izerditan. Usain ederra dute oraingo pu-

ta gazteek. Ea konturatzen diren ez dudala jaiki nahi. Gero, oheratzen nautenean, ez dut nahi izango ohean egoterik. Esertzen nautenean, hankak luzatuko ditut, tema egitearren.

Batek, bietako indartsuenak, aurretik hartu nau. Bularra erakusten ari zait, soineko zuriaren azken bi botoiak irekita ditu eta. Bada, nik ikusiko ez banu bezala. Begietara begiratu dut, eta kito. Besteak gerritik. Nola adierazi ez dudala nahi inork igurztea? Zaila da. Lan hau egiteko nire semeak ordaintzen baitie.

Han dator bera, hirugarren emaztearekin. Neska ederra da, azken hau. Ez dakit nola lortzen duen halako emakumeak engainatzea, izan, babo hutsa baita. Zerbait esan dit. Ergelkeriaren bat, ziur. Ez diot kasurik egin. Aurrera begira gelditu naiz. Haserre nago biekin.

Bularretako estuegia du Pepitak. Hurbiletik aurpegi iluna antzeman diot. Benetako aurpegi zakarra. Niretzako, berak konbentzitu duela Joxeba ni putetxe honetara ekartzeko. *-Biok elkarrekin egongo gara, bakarrik, zure aitaren etxean. Ordua zen. Ondo egin duzu putetxe horretan sartzen. Ez zara damutuko. Fusila hutsuko dizut?-.*

Nola aldatu diren egoerak. Gure garaian, emakumeak horrelako tokietara ez ziren sartzen ausartzen. Orain, bertako emagalduei hitz egiten ari da, erizainak izango balira bezala. Lotsagabea. Ez diet gehiago kasurik egingo. Horrela ikasiko dute.

Eskutik heldu dit Joxebak, esango nuke igurzten ari zaidala. Bestaldetik, Pepitak heldu dit. Papparreko botoiak solte dituen neskak, indartsuenak, besapetik hartu nau.



Besteak prakak jaitsi dizkit, eta dototisa kendu. Hori bai erregaloea egin diedala. Kaka mokordo mardula. Harrapazak!

Ez dute besterik merezi. Bizi guztian euren atzetik, zaintzen, eurekin jolasean, eurekin oporretara, medikuarengana, dentistarengana, irakaslearengana, mendira, Athleticeko partiduetara...

Eta, horren truke, putetxera ekarri ez naute ba!

Bada, erabaki dut, hemendik aurrera, sillarruedasen jarriko naizela. Eta ez naiz gehiago altxatuko *-Garabi handi batekin altxa beharko nauzue-.*

Eseri naute ohean, atzealdea igo eta gero. Lasai nago. Joan dira emagalduek. Semea eta emaztea bakarrik geratu dira. Hirurok gaude. Ez didate jaramonik egiten, ez baitaukate inor begira.

Pepitak poltsa ireki du. Eskuetan zerbait jarri didate. Boligrafoa edo. Nik, ostera, atzaparrak mugitu gabe, gogor-gogor eginda. Notariako orri batzuk atera dituzte. Sinatzea nahi dute. Ez naiz mugituko. Izorra daitezela!

Atzamarrak bildu dizkidate, zelo transparenteaz. Ematen du, benetan, boligrafoa heltzen ari naizela. Dena antolaturik zeukaten. Joxebak bizkarretik heldu dit. Besarkatzen egongo balitzait bezala. Kokotsa altxatu dit. Argazkia ateratzera doaz, sinatzen ari izango bainintzaien. Eutsi behar diot. Ez etsi.

Gorputzak gainbehera egin dit, pisu osoz eskumarantz, eta ez dute ateratzerik izan. Esku artetik erori natzaio. Ohetik lurrera. Danbatekoa. Hankaz gora nago. Lepoa oker-oket, belaunak hormaren kontra, masaila lurrari jota. Boligrafoa gibeleraino sartzen ari zait. Inor ez dator laguntzera.

Barrea irten zait, inork ikusi ezin nauelako. Uste dut, hartu dudana rekin ez dudala aste bi iraungo, baina ondo izorratu ditut. Ezin izan dute argazkirik atera. Ezin-go dute etxea izenez aldatu. Ezin mendekua burutu.

Oihuak sumatzen ditut. Eurak ere erori dira. Semea, ohe azpian dago, irten ezinik. Besoa okertu du, eta kexaka ari da. Pepita, oster, aztoratuta. Emagalduei deitzera joan da, garrasika. Etorri dira proxeneta indartsu batekin. Denen artean heldu naute.

Pepita eta nire seme alu hori negarrez daudenarena egiten ari dira, nazkanteak. Sinistu egingo diete, gainera. Kontatzen ari dira, zotinka, zer gertatu zaien; auskalo zer bertsio; beraien aldekoa, beskeen gustukoa.

Ohean jarri nautenean min handia sumatu dut bularrean, bihotza izango da. Aurpegiaren igarri ditate, guztiak neuri begira gelditu baitira. Lasai hil naiteke. Keinu egin diet, azken agurra ezin baitiet ukatu.


Semeak eskuetatik hartu nau, azkenean adiskidetu nahi izango balu bezala.

Izugarrizko sastada. Sinatu gabe hiltzera noa, behintzat. Hau zoria, putetxean hil behar, eta jendez inguratutik.

Ea aurpegiaren itxuran gelditzen zaidan. Begiak itxiko ditut. Ahoa ere bai. Irribarrea, mesedez. Ai!

Dena zuentzat! Aluok!  
Agur!

Iñaki Odriozola



## Bidaiaria

**Infinituan zehar, aroetan zehar, unibertsoen artean bidaiatzen duen esploratzailea naiz.** Asperraldi eternalean murgilduta nengibilela, gutxien espero nuenean, sekula ikusi gabeko txokoa topatu nuen. Zenbatu ezin diren aro hauetan guztietan ezagutu dit lanpetutako arrazarik. Badakit gisa honetakoak agertu aurretiko aztarnak interpretatzen. Arreta handiz begiratu beharra dago, argia baino bizkorrago pizten baita txinparta. Gehienetan itzali ere bai, ordea. Planeta urdin honetan dena inolako oztoporik gabe aurrera zihoan, eta halako batean, ia konturatzerako, hantxe nuen gizakia.

Ni ere garai batean horrelakoxea izango nintzen. Baina gizakiak hain dira buruarin eta ikaratiak! Beti txunditu izan nau barnean daukaten indarrak, askotan borborika ihes egingo duela dirudien energia olde izugarri horrek. Bakar bat nahikoa da itxaropena sortzeko, baina nahiago dute oldean ezkutatu eta atzeraka, estropezu egin eta amildegian behera erori.

Galdetu izan diot neure buruari nolatan iritsi ote diren hain urrun. Lipar batean leize-zuloetatik espazio zabalera. Oraindik urrunago joan beharra daukate, ordea. Buru makur dabilta, oinetara begira. Eta begiak altxatuz gero, parean pasatzen den lehenengo profetari saltzen diote euren arima. Beraiek eboluzioa deitzen diote, baina bere horretan gelditu da. Izaki patetiko miseralea. Ez besterik.

Batzuetan gogoratzen naiz gazte garaiaz, eta niretzat denboraren egunsentia bezain argi dagoena azaldu nahi nieke: egia barnean daramatela, eta hura besarkatzeak grazia salbatzaile baten gisa alda dezakeela patua. Borrokaldia gogorra eta luzea izan arren, bide horrek eramango ditu suntsipen ala salbamenera. Hala ere, izango al dute etorriko denari aurre egiteko beharrezkoa den gaia?

Aski lukete barnean so egitea. Bertan topatuko dute oinazetzen dituen gaitzaren sendagaia. Biderik latzena. Etengabeko frogak kemenarentzat. Badator gizakiaren garaiaren amaiera. Aldaketa. Gizakiak behar duena. Onerako zein txarrerako.

Nik bila jarraituko dut.

Urtzi Leonet Santa Cruz

# Eskumuturrean min


Igelek hitz egiten zuten garaiko kondaira batek dio- eta kondairei beti egin behar omen zaie kasu- erlojugile bat bizi zela euskal kostaldeko herri zokondoratu batean, badira hamarkada anitz.

Oroimenak ere gogorarazi ezin zuen garai urrunean hasi zen erlojuekin lan eta lan; denborak izan zezakeen botereaz ohartu ere ezin zen haurtzaro garaian, alegia. Urteen poderioz, bizar zuria bihurtu zen bere egunerokotasunaren lekuko bakar eta leial. Iratzarri eta loak gatibu harapatzen zuen arte ematen zuen eguna itsasertzeko egurrezko txabola herdoilduan erlojuen begiradapean lanean.

Esku lirainak zituen bai; eta zimur bakoitza, bizitzako oroitzapen ahaztezin baten jagole zen. Maitasun istorio liluragarriak, gaixotasun eta minei irabazitako borrorak, gau bakartiak, ametsakegi bilakatu zireneko uneak, biziki sentitutako taupada bakoitza... Guztiak zituen azalean idatzirik.

Kokotsa pentsakor laztantzen zuen arrastietako batean, gibelako hormari so egin eta Arantzazuko egutegiko beste orrialde bat txikitu zuen: *apirilak 7, larunbata. Ilbetea. "Denbora: gizakiak akabatu nahi duena; azkenean, haren erruz hiltzen bada ere." H.Spencer.*

87 urte bete berri zituela ohartu zen. Uste baino gehiago. Hasperen egin eta begiak kliskatu zituen momentu batez. Eta orduan konturatu zen, denbora baino opari ederragorik ezin zuela inork jaso. Duda-mudatan aritu ostean, be-



re lan-tokiko erlojuak kutxa banatan sartu zituen; ehunaka ale bildu zituen arte.

Etxez etxe ibili zen denbora luzez; herritar bakoitzak atarian kutxa miresgarri bat izan zezan. Ezker-eskuin, aurre-atze eta gora-behera eman zituen ordu anitz zapatak higitzen; nahiz eta unadurak behartuta, makina bat aldiz egin behar izan zuen apatx bidean topatu zituen jesarleku eta txokoe-tan; gorputz eta buruak atsedean eske oihu egiten zuten bakoitzean.

Etsia hartzeko zorian zegoela, oraindik ere bizirik zirauen kemenaz baliatu eta aurrera egin zuen kale eta bidexketan barrena; eta arnasestuka; erloju guztiak banatzea lortu zuen. Guzti-guztiak.

Gaueko iluntasuna ortziko errege izendatu zenean moila ertzean eseri zen; zeruko izarrak lagun, eta irriño maitagarri bat eskaini zion ilargiari. Itsasoko olatuek eskaintzen zioten lasaitasun-kresala arnasteak biziberritzen zuen bere arima, eta han igaro zuen gaua; lo hartzeak denbora galtzea bes-

terik ez ziola ekarriko indar handiz sinetsiz.

Bien bitartean, erantzunik gabeko galdera ikurrez blai topatzen ziren herritarrek, jaso berri zuten kutxaren zentzua han eta hemen bilatu nahian; inguratzen gaituenen ororen zergatia aurkitzea izan baita betidanik gure kezka bakarra.

Inoiz inork entzun ez bazuen ere, agureak ahopeka: "Jakin, horrela, denbora xahutu besterik ez dugula egin orain arte. Hura bai poza, une bakoitzaren xarmaz gozatu eta galderak alboratu izan bagenu.... Zergatiek ez dute izan inoiz guk eman nahi izan diogun garrantzirik"

Kutxa bakoitzaren barnean erloju bat, eskuz idatzirik ohar baten azpian ezkutaturik.

"Zaindu ezazu denbora, zure ondare bakarra bailitzan; horrela baidetik ez baituzu lortuko bizitzaren goxotasuna dastatzea. Iragana izan zen eta jada ez da; etorkizuna izango da baina oraindik ez da; beraz, orainaldia musukatu, besarkatu, maitatu; ahantzuraren usteldurik hil ez dadin...

Hilabeteak hutsalak direla inoiz pentsatu izan baduzu esaiozu hori urrunera bidai egin behar, eta familia etxean utzi behar izan duen marineleri. Egun bat motzegia dela baderitzozu gogora ekar ezazu pertsona hura ezagutu zenuen egun paregabea. Ordu bat ezereza dela? Oroitu ezin duzun jaio zinenekoa ahaztezina da oso zure inguru hurbilarentzat. Minutu bat huskeria besterik ez dela pentsatuz gero, entzun ezazu errai-

# Edo ni edo Siza

nak uzkurtzen dizkizun abestia eta ulertuko duzu urrearen pareko denbora dela. Segundo batek garrantzirik ez duela uste baduzu kutxa hau etxe parean aurkitu duzun segundoa betirako gogoan izango duzula argi izan. Zurea da denbora, zurea besterik ez; eta inork inoiz lapurtu ezingo dizun ondare bakarra izanik, bizi ezazu etorkizunik ez balego legez.

Ulertuko duzu noizbait, erlojuaren tik-tak amaigabea izango dela zure bizitzaren bide bihurrian harrizkak banan-banan kokatuko dituenena. Hurbildu zaitez, eta entzun ezazu orratzen hotsa ... Aurrera doaz etengabe; ez zaitez beraz, zu atzean geratu. Segundo hau joan da; baita hau ere; eta orain beste hau... Nabaritzen al duzu?

Urte asko daramatzat buztan; eta nire ordularia moteltzen ari dela nabari dezaket. Orain, 87 urteetan bizi izan dudan minutu bakoitza oparitu nahi nizueke; zuretzat beraz, nire denboraren puska bat..."

Bere laurogeita zazpi urteak banatuak zituen, eta aske sentitzen zen berriro ere, eramanezina zitzaion zama desagerrarazi izan balu bezala.

Minjiangaitza nabaritzen hasi zen ezkerreko eskumuturrean, erlojuaren azpialdean hain zuzen. Adinak pisu gehiegi hartua zuen bere bizitzan. Azkenengo minutu latzak, luzeak eta mingarriak bizi behar zituen seinale.

Erlojua eskumuturretik kendu, itsasora bota eta ez zuen hitzik berriro esan. Denborak esku artetik ihes egin zion...

**Haizea Galarraga**

**Eztabaida luze baten ondoren, Carlosek eta biok udako opor-bidaian Portugalera joatea erabaki genuen.** Duela urtebete eskas. Ez zen erabaki erraza izan, baina harremana bertan behera uztea baino errazagoa izan zen, une hartan halakorik elkarrizkatzera ausartu ez baginen ere.

Alferrik da gorpuak berpizten saiatzea, ez gaitezen engaina. Harreman hura ordurako hilotza zen, eguratsa kirastentzen zena; baina batzuetan gertaera konkretu baten beharra izaten dugu istorioak amaitzeko, edota denbora alferrik galtzeari uzteko erabaki irmoa hartu aurretik. Dagoeneko bata bestearen apeta guztiak ezagutzen genituen; niri biluzik lo egitea gustatzen zitzaidan, kafea azukrerik gabe, eta Carlosek ezin eramana zuen *Cleo* nire katuarekin. Nik eguna eta berak gaua, nik zuria eta berak beltza. Haseran kitzikagarria zela uste izan genuen. Bateriaezintasunaren arrazoiak sakonagoak ziren ordea, inoiz onartzera ausartu ez baginen ere. Orain, atzera begirakoan argiago ikusten dut guztia.

Ostiral goizean hartu genuen hegazkina, Bilbotik Portora. *Rua dos Caldeireiros*-en hartua genuen ostatua, Argazkilaritza Zentro Portugaldearen alboan, *Torre dos Clérigos*-etik gertu. Ekipaia bertan utzi eta kaleketan barrena galdu ginen, noraezean.

Carlos *Livroria Lelo e Irmao* ezagutzeko irrikitan zegoen. Harry Potter-en hainbat parte kokatzen da liburudenda hartan. Ez ninduen bereziki erakartzen, baina bidean topatu genuenez sartu egin ginen. Zurezko eskailera ederraren alboetara liburu gairuz gairuz ziren apalak; literatura, bidaiak, arkitektura, artea. Bakoitzak bere jakinmina ase genuen, beti bezala apal ezberdinetan. Carlosek Harry Potter-en bilduma berezi bat hartu zuen eskuetan, en-

los atzetik nuen arnas estuan. Urduri, jada haserre esango nuke. Portora itzuli beharra genuen maletak hartu eta aireportura joateko. Bulegora joan behar zuen Carlosek hurrengo goizean. Ordulariari begiratu zion artega eta nire portaera heldugabea iruditzen zitzaiola antzeman nion, zeharo infantila. Dagoeneko berandu zen.

- Ez al duzu ezagutzen? Sizarren lehen obretakoa, barne aldeak Alvar Aalto gogorarazten du, kutsu orientala, zoragarria, altxor txiki bat!- besotik heldu nion, ilusioz beteta, pozak gaindituta. Dagoeneko berandu zen.

- Hegazkina galduko dugu! Jada aireportuan behar genuen!- arrapostu zidan nire irrikari muzin eginez.

- Pikutara betebeharrak! Gera gaitzen, Carlos!- itxaropentsu neronek.

- Edo ni edo Siza... - bota zuen hotz. Labur. Serio.

Hitzik esan gabe, begirada eutsi nion segundo batzuek. Dardarka ari zela iruditu zitzaidan, baina ez nuke ziur esango. Ordurako lursail amaigabea luzatzen zen bion artean.

Itsasaldera begiratu nuen gero. Galerna zetorrela zirudien eta egokiena babes bila Casa di Cha-n sartzea izango zela iruditu zitzaidan. Carlosek, txintik egin gabe, itzulera ezineko erabakia hartu zuen: Portorakobidea ekaitzaren erdian. Hura izan zen elkarren berri izan genuen azken aldia. Eta orain, bidaia hari esker Alvaro Sizarren obra goitik behera ezagutu ondoren, argiago ikusten dut guztia. Elkarrekin egon ginen azken une hartan ere gure hau-tuak bateraezinak izan zirela, alegia.

**Ekhiñe Egiguren**

kuadernazio dotoreak liluratuta. Nik *Arkitekura Portugal-darra* izeneko liburu mardulari heldu nion eta hiruzpalau autore aipatzen zirela ikusi nuen; Fernando Tavora, Alvaro Siza, Souto de Moura eta Alvaro Rocha. Portoko Arkitektura Eskolakoak.

-Batuetan gertatzen da, artista baten lana ez dugula estimatzen bat-batean liluratuta uzten gaituen pieza bat deskubritzen dugun arte- esan nion Carlosi liburudendatik irten ginenean.

Isilik begiratu zidan, esaten nuen ulertuko ez balu bezala. Erosi berri zuen Harry Potter-en bildumarekin bera ere oso pozik zegoela gaineratu zuen segundo batzuetara.

Erdigune historikoaren kale estuetan galdu ginen, Douro ibaia- ren ertzeraino heldu arte. Handik muinoaren magaletan kiribiltzen diren portualdeko eraikin zaharren argazkiak atera genituen. Ikuspegi xarmangarria benetan, distira galdu duen auzoaren malenkonia. *Dom Luis I* zubia eta haren itzala ibaian,

metalezko egitura, eguzki izpiek zeharkatzen zutena. Zubi hura Eiffel-en ikasle batek diseinatu zuela esatekotan egon nintzen, baina neuretzat gorde nuen. Ez dut uste Carlosi gehiegi interesatuko zitzaionik.

Astebetean hiria ondo ezagutzeko astia izan genuen. Ederra da Porto eta eguraldia ere gure alde zen. Halere, eztabaida artean pasa zitzaigun ia denbora guztia eta iraugite data iragana zuen maitasun istorio batean murgildurik geundela pentsatu nuen behin baino gehiagotan. Orain, atzera begira, iruditzen zait eszenatoki aparta izan zela paisaia portugal-darra gure antzezlanarekin jarraitzeko.

Azken eguna oroitzen dut garbien. Abuztu arratsalde eguzkitsua, hiruzpalau ordu falta ziren oporrak amaitzeko. Carlos eta biok oinez Portotik Matosinhos herrirainoko itsasertza ibili ondoren, harkaitzen ezkutan eraikin zuri batek arreta piztu zidan berehala. Urrunetik puntu zuri ezdeusa, arkitektura pieza zoragarria begitandu zitzaidan gerturatu ahal. Hura ezusteko atsegina. Pozez lehertzear nengoen.

Siza-rena da! – oihu egin nuen-Casa de Chá, Carlos! – korrika ateraino hurbildu nintzen. Car-

# Ameslari

**Irribarrez zoaz plazan aurrera.** Oraindik ere go-goan dabilkizu aurrekoan entzun zenuen esaldi hura: *"Pena bizkarrean dugun elefantea da"*. Zein esaldi potoloa... eta zer nolako egia. Igerilekutik irten berri zarelako akaso baina bizkarra arin-arin sumatzen duzu. Ez ote duzu penarik? Ene... zer nolako burutazioak goizeko bederatziak izateko! Tira, ez dakizu "penametroa" bizkarrean pilatzen duzun baina gustuko duzu esaldia.

Etxera bidean esaldia aztertzen jarraitu duzu eta zure penak, une horretan behintzat, non dauden ez badakizu ere, argi daukazu sentimenduak eta hitzak usu lotu izan dituzula zure barnean. Penaren eta elefantearen loturari egoki iritzi diozu. Horrekin batera, zure buruan dituzun beste hainbat aztertzen hasi zara, entzun duzuna, nolabait, zure egin nahian. Telebistan lan egiteak izango du eragina, baina saiatzen zara gauzei irudiak jartzen, mapa kontzeptualak baina eraginkorragoak baitzaizkizu. XXI. mendearen eragina ote?

Bizkar-zorroa etxean utzi eta laneko trasteak bildu dituzu. Bazoaz eskailetan behera, korrika txikian. Kotxea hartu eta presa hitzarekin hasi zara pentsatzen. Presak estres handia eragiten dizu. Osa dezazun esaldia zeuk ere: "Estresa lantegietako tximiniek botatzen duten ke itogarria da". Esaldi luzea da eta ez zaizu gehiegi gustatzen baina esaldiarekin berarekin erabat ados zaude. Estresak ito egiten zaitu eta ez dizu haratago dagoena argi ikusten uzten. Lantegietako keak antzeko sentimendua eragiten dizu, higuina.

Barrez hasi zara. Pertsona baikorra zara eta estresarekin pentsatzen ari zara. Pentsatze hutsak kalte egiten dizu, ziur. Kotxea zure territoria da eta

bertan beste burutazio batzuk izatea nahiago duzu. Ez diozu goizeko jolasari izkin egin nahi. Pentsa ezazu beste esaldi bat: "poza marrubi koloreko hodeia da". Nolakoak ote dira lainoak? Eta, marrubizkoak badira, jan ote daitezke? Letretakoa zara, ez dakizu zein elementu dituzten lainoek baina, uraren zikloarekin lotuta daudenez gozoak behar dute izan, edo hala uste duzu zuk behintzat.

Kotxea aparkatu duzu eta telebistan sartzeaz zaudete. Lanean hasiko zara segituan baina ariketarekin jarraitu nahi duzu pixkatxo batean. Lantokiarri begiratu eta halaxe etorri zaizu esaldia: "Itxaropena basoko ibilaldien usain lasaia da". Mendian egon nahiko zenuke, lasaitasunarekin hizketan. Bako pertsonala eragiten dizu egoera pentsatze hutsak, eta, gainera, oso umore oneko jartzen zaitu. Lana eta itxaropena lotu dituzu, bai ateraldi bitxia. Zure lana beste modu batekoa izatea nahi zenuke, askeagoa. Horregatik jarri ote zara itxaropenarekin pentsatzen? Baliteke.

Atea zeharkatzen ari zara. Irudimena ezinbestekoa omen da zure lanean. Hala ere, bertan zaudenean ezinezkoa zaizu jolasten jarraitzea, makina bihurtzen zara. Horixe nahi dute zure nagusiek: zu hankak dituen makina izatea. Lana bukatzean, ordea, jarraituko duzu zure bizitzari zertzelada ederrak ematen. Diotena diotela, koloretako bizitza bat bizi nahi duzu, estresarekin zein pozarekin osatutako koloretako bizitza. Eta zure aisialdian bada ere, halaxe egingo duzu.

Tira, azken bat lanean jarri aurretik: "Zoriontasuna desorekan egindako bidaia da, desorekan baitago oreka".


# Denbora pasa

Arretaz irakurri orain azalduko dizudana. Baietz asmatu zuk pentsatzen duzuna!

- Hasteko, pentsatu zenbaki bat batetik bederatzira. Jada pentsatu duzu?
- Orduan, zifra horri kendu bost.
- Kenketa horren emaitza bider hiru egin.
- Orain zenbaki hori biderkatu zenbaki beragatik. Adibidez, "2" bada, "2x2" egin behar duzu.
- Lortu dituzun zifren batuketa egin, harik eta zifra bateko zenbakia lortu arte. Esate baterako:  $64=6+4$ ,  $10=1+0=1$ .
- Batuketa horren azken emaitza izan buruan. Lortu duzun zenbakia bost baino gutxiago bada, orduan gehitu bost. Baina, bost edo bost baino gehiago bada, kendu lau.
- Emaitza hori biderkatu bider bi.
- Kendu sei.
- Hurrengo pausua izango da eskuratu duzun zenbaki hori letra bihurtzea. Horretarako, alfabetoaren ordena (a, b, c, d, e...) jarraitu behar duzu. Adibidez,  $1=A$ ,  $2=B$ ,  $3=C$ ... Ulertu duzu? Bada, aukeratu zurea! Badaukazu? Ederto!
- Izan buruan letra hori, ez ahaztu. Bukatzeko, zuk aukeratutako letraz hasten den herrialde bat pentsatu.

Baduzu? Ondo! Itxaron unetxo bat... Zeure buruarekin harremanetan jartzen ari naiz. Unetxo bat gehiago... Badakit... Uste dut honako hau pentsatu duzula: "Dinamarka". Asmatu du, ezta?

Isabel Martin



## INFO





I R R A T I A

**Hitzen Lihoa** astelehenetik ostiralera  
goizeko 10:00etatik 12:00etara  
*Idazle Eskolako berriak*  
*astelehenero*

**www.info7.com** webgunean zuzenean  
edo nahieran entzuteko aukera.





# Negu-sua

(Taberna baten atarian 30 urteko gizon gaztea zigarro bat erretzera doa (X). Negua da, hotz egiten du eta txamarraz ondo estalia du lepaldea. Esku batean eskularrua jantzita dauka, beste eskua aldiz larrutan, piztu gabeko zigarroa helduz. Artista itxura dauka. Ikusmira zerurantz doakio, elurra botako ote duenari so.

Lasaitasuna apurtzera, herriko langile-brigadako emakume bat irtengo da tabernatik, hogeita hamabosten bat urteko emakumea (Y). Hau ere, bere atsedendian, zigarroa erre asmotan).

X: Hotz egiten du, ezta? (zerura begira)

Y: Bai (poltsikoetan sua topatu nahian).  
Kalean lan egiten dugunok ederki asko dakigu hori!!! Barkatu, surik ba al duzu, mesedez?

X: Bai, bai. Hemen. (Xek bere eskuartean piztuko du metxeroa eta Yri zigarroa piztuko dio. Jarraian berea irazekiko du)

Y: Eskerrik asko. Bizioak bizio, hotz honekin ere erregaiari eman eta eman!!

(Bien arteko begirada gertatuko da)

X: Ederra da hotza, barrua bero dugunetan.

Y: Erregaiak xurgatzen digu hotza, plazerearen bideetatik...

X: Plazerearen bideetatik...  
Poesia zalea al zara?

Y: Poesia zalea, ni? Egia esan, ez dut poesiarik sekula irakurri.

X: Etorria baduzu, ba.

Y: Hotzak berak inspiratuko ninduen!  
Halako egunetan, negu gorriaren zorigaitzetan baino hobe da beste zer edo zertan pentsatu!

X: Ba, ni, artean arteko eguraldi honek xarmatzen nau. Atsegina iruditzen zait oso, hotzak azala leuntzen duen era, itsasertzeko ipar-haizeak halakoetan atonan biluzten gaituen modua.

Y: Zu bazara poesia zalea, ezta?

X: Poesia baino natura bera gustatzen zait, naturak sorrarazten du poesia.

(Elur malutak mara-mara erortzen hasiko dira)

Y: Hara!

Tori ba, sua eskertuz, elur malutak zuretzat opari.

X; Niretzat?

Y: Zuretzat, noski.

(Bien arteko begirada isila gurutzatuko da, sua eta hotza bien artean igaro balira bezala.)

Y: Tira, berotara noa, ipar-haizeak barrua guztiz biluztu aurretik...

X: Ni hemen geratuko naiz, plazereko bideetan, oparitutako malutei begira.

(Yk zigarroa itzaliko du. X begira geratuko zaio)

X: (Y barrura sartzera doanean...) Bi txikero dauzkat eta nik bat baino ez dut behar. Har ezazu bestea zuretzat.

Y: (Xi begira geratuko da) Surik falta ez dakidan?

Eskerrik asko.

X: Naturak sortutako poetek, sua bihotzean izaten dute. Hau, zigarroak pizteko beharko duzu soilik (metxeroa eman bitartean).

(Bien artean begirada trukatu dute beste behin. Y tabernara sartuko da.)

(Iluntasuna.

Xen zigarro pindarra soilik ikusiko da.

Xek zigarroa amatatuko du.)

Idoia Gereñu

# UNED-Bergara

UNED

BERGARA



GRADUAK

Graduondokoak  
Aratu gabeko ikastaroak  
Hizkuntzak  
Berezko ikastaroak  
Sarrerako ikastaroak

onarpena >>> uztailak 2-urriak 18  
ikasle berrientzat matrikula>>> irailak 4-25



**Informazioa:**

UNED. Martin Agirre Pl., 4.  
20570 Bergara  
Tel. 943 76 90 33  
[info@bergara.uned.es](mailto:info@bergara.uned.es)  
[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)

# EGIN ZAITEZ BAZKIDE


## EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

eie@idazleak.org

Tel: 943 27 69 99



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA



*“Alferrikakoa da esertzea idazteko oraindik ez zarenean zutitu bizitzeko.”*

*Henry David Thoreau*

# MIREN AGUR MEABE:

## *Azalaren kodetik, Bitsa eskuetara*

Irakurle batentzat gustuko autorea aurkitzea altxorra eskuratzearen parekoa da, haren liburuak bitxien modura gordeko ditu handik aurrera, noizean behin berriz irakurtzeko, edota testu horien edertasuna gogoratzeko bada ere. Hasieran haur-jolasa dirudiena ez da batere erraza, poesia zaleontzat aurkikuntza hauek ezohikoak izaten baitira, poema liburuek eta oro har poetek ez dutelako beste generoek izan ohi duten ibilbidea eta zabalkuntza. Beraz, poesia irakurleok beti gabiltza aztarna bila, zokomiran, usnaka. Detektibeak gara. Edo piratak.

Halaxe heldu zen *Azalaren kodea*, Miren Agur Meaberen poema liburua, nire eskuetara 2000. urtean. Lau zatitan egituraturakoa da: *Oharrak, Orbainak, Tatuajeak eta Kontrazeinuak*. Lehenengo pertsonan ari den emakumezko *ni*-a da protagonista, eta hizkuntzaren bidezko komunikazioaz harago, beste komunikazio sistema baten beharra aldarrikatzen du. Hortik, azalaren kodea: *"Bestelako kodea aldarrikatu nahi dut: hitzarena ez bezalako kodea"*. Gorputzak garrantzi handia du Meaberen poemetan. Azala gorputza da, eta gorputza izatea bera. Meabek berak *erradiografia kaleidoskopikoa* deitzen dio honi. *Erradiografia*, bere barne mundua bistan uzten duelako, eta *kaleidoskopikoa*, bere izanaren pieza txikiak direlako ikusgai, atal mugikorrak, osotasun aldagarrria islatuz. Bat datoz ni egilea eta ni poetikoa.

Horrekin batera mezua ematean gardentasuna, erosotasuna eta dotoreziaren arteko oreka lortu nahia; *"Ez da perfekzioa bilatzen, edertasuna baizik. Ez da egia bilatzen, benetakotasuna baizik. Ez da traspazientzia bilatzen, intentsitatea baizik"*

*Azalaren kodea* ezusteko paregabea izan zen poesia irakurtzen dugunontzat; liluraturik utzi gintuen harribitxiak. Geroztik, beste zenbait lan kaleratu dituen arren, 2010era arte ez du poema libururik atera. Horregatik, aspaldian espero genuena da bere azken liburua: *Bitsa eskuetan*.

Hiru atalez dago egituratua: *La Vie en Rose*, izatearen erre-

paso modukoa dena; *Harearen geriza*, amaren heriotzari idatzitako poemak; eta *Zapitxo Intimoak*, harreman baten kontaketa. Hiruetan bitsa bizitza bera da, bere oparotasun eta gabeziekin. Eta poeta da; Meibi, Maybe, agian, Meabe, Goikokaleko neska, Plisir, La Jolie Fille, Miren Agur, Mirentxu, emakume kaierduna, emakume kapeladuna. Idazlea bere liburuetan eta bere liburuetatik kanpo da emakumea, laguna, ama, alaba, emaztea, maitalea, poeta. Guztiak poliedro beraren aurpegiak.

Frantziar erreferentziak topa genitzake; Edith Piaf, *La Vie en Rose*. Urre gorria, eta kontrajarrarian urre zuria. Gaua eta gaitza. Bigarren azala. Liburuko lehen poema, *Definizioa*, 2001. urtean idatzia da, eta *Entropia* poema, liburua amaitu aurreko unean, 2010ean. Beraz, bilduma honek denboran egindako ibilbidetik garmatza, autorearen azken bizialditik jasotakotik.

Liburu honi buruz Meabek esana da: *"Bizitzak eman behar izan dit eta kendu liburu hau idazteko. Eta idatzi ahala, idazten jardun dudalako, beste noranzko bat hartu du nire bizitzak, idatziz jartzean, errebelatu egiten zaizkigu ordura arte zehaztu gabeak ziren intuizioak eta sentipenak. Horrenbestez, idazkuntzari traiziorik ez egiteko, ezin traizionatu bizitza, eta alderantziz"*.

Meabe-ren poemetan *"munduko denbora guztia sar liteke leopardo sosten batean"*, *"eguzkia obulu glaseatua arrasberheran"* da, *"zeruak adurra askatzen du"* edota *"altzifreek gorantz hurruputzen"*. Benetako bizitza benetako poesia egiteko aski ote den galdetzen da, eta maitasuna kubo bat dela esan.

Hiztegi berri bat ikasi daiteke Meaberi irakurriz. Aspalditik ezagunak ditugun hitzei esanahi berriak topatzen erakutsiko digu. Eta ederragoa dena, hitz horiekin inoiz irudikatzen ausartuko ez ginatkeen ideia eta sentimenduetatik eramango gaitu idazleak.

Badakigu, Meaberentzat denbora ez da alferrik pasatzen. Horren erakusleho da azken urteotako bere obra oparoa. Ziur gaude, dagoeneko izango dira

beste poema eta idatziak egunen batean argitara emango dituenak. Jada itxaroran gaude irrikaz; altxorra topatu nahiak sortzen duen ezinegonez, ilusioz beteta. Poesia irakurtzen dugunak detektibeak baikara. Edota piratak.

Ekhiñe Egiguren





## Miren Agur Meabe

Bere etxean dugu zain Miren Agur. Egun lainotsua baina emankorra izango den esperantzaz hasi du elkarrizketa. Ziurrenik badakielako hodei grisei aurre egiten. Aurre egiten eta, horiek isuritako tantak, ele ibai bilakatzen.

### Zer da zuretzat idazle izatea?

Hizkuntza idatziaren bidez, gizakiaren eta munduaren arteko harremanazentzu zabalean eta era ederrean hitz egitea. Edozein gai interesgarri bilakatzea -edozein gai izan daitekeelako kontagarri, adierazteko moduaren bidez. Idazle izatea ez da ondo erredaktatzea, baizik eta gaiari trataera berezia ematea eta testuak esaten duenetik harago joatearen sentsazioa uztea.

### Idazlea, itzultzailea eta irakaslea ere izan zara. Zeinekin sentitzen zara identifikatuago?

Orain irakasle-lan gutxi egiten dut, ez badira jende helduarekin egiten ditudan saioak-eta. Lehenago asko gustatzen zitzaidan umeen irakaslea izatea. Dena dela, joandakoaldi batekin lotzen dut lanbide hori; gaur egun egoikiago ikusten dut neure burua idazle. Eguneroko zeregina itzulpengintzarekin uztartzen dut, ikastetxeetako saioekin, hitzaldiekin, eta abar.

### Erraz erabakitzen al duzu zeren inguruan idatzi?

Zalantzak izaten ditut. Gai batzuk, bi-

zipen batzuk edo gertaera batzuk bereziki interesgarriak iruditzen zaizkit, baina gero mugak izaten ditut horiek modu berezi eta pertsonalean adierazteko, adimenezko zein hizkuntzazko mugak. Bestalde, badaude nire lanetan gai errepikakorrak. Azkenaldian, adibidez, amaren heriotza, bai *Bitsa eskuetan* edo *Zazpi orduak* liburuetan. *Mila magnolia-lore* albumean ere islatzen da ama ausentearen presentzia. Memoria, onirismoa, amodioa eta horren inguruko bizipenak eta abar dira beste gai batzuk.

### Gaiak bakarrik ez, idazteko era edo figura jakin batzuk ere errepikatzen al dira?

Bai, badira leitmotiv batzuk sinbologiari dagokionez: kolore morea, ura... Eta idazteko erari dagokionez, halakotik batzuk: gehienetan narratzailea 1. pertsona singularra izatea. Edo pertsonaiak erdi idazleak izatea; hau, egunerokoak edo koadernoak idazten dituztenak... Nire lanetan ia beti dago idazkuntzarekin oso lotuta dagoen fikziozko bat, nire *alter egoa* dena no-

labait. Bestalde, testu-tipologiaren osagarritasuna ere ikusten da —generoen konbinazioa liburu bakarrean—, pertsonaiafemeninoen nagusitasuna...

### Zein eremutan ibiltzen zara gustu- ren? Haur eta gazte literaturan, oler- kigintzan, helduen literaturan...?

Denetan. Generoak janariarekin konparatuko nitzuke: ezin zara egunero egon arrautza frijituak jaten. Nahiz eta oso gustukoak izan, egunero janzero, nazkatu edo gaixotu egingo zinateke. Janaria bezala, generoa ere aldatzea komeni da. Gogoaren edo aldatzearen arabera, nekaduraren arabera, jasotzen ditudan estimuluen arabera... genero batetik bestera saltoka ibiltzen naiz. Batean eta bestean ibiltzea atsedean hartzeko, etekin hobea lortzeko eta gehiago dibertitzeko modua izaten da.

### Nola konbinatzen dituzu generoak?

Poesia da beti atze-ohal bezala daukadana, bizitzako gertaera funtsezkoek poesiaren aterpera eramaten nautelako. Batzuetan, haur edo gazteenzako istorioetan ere poesia sartzen

rrak berezko joera dauka jolaserako eta bizitzaren alde ludikoa aprobeztatzeko, eta hala izan behar du. Eta nerabezaroan hasten dira kontzienteagoak izaten munduaz, eta munduko arazoez. Gaurko mundua oso konplexua da, desberdintasun ekonomiko eta sozialak izugarriak dira, eta horretaz jakitun izan behar du umeak, apurka-apurka jarrera solidario eta kritikoa lortzeko. Era berean, iruditzen zait pixkanaka jabetu behar dutela dimentsio espiritualaz ere, heriotza eta bizitza txirikordatu egiten baitira eta, nolabait, haurrak transzendentziari zabaltzen dio bere burua. Politika da urtebetetzez edo oporrez eta abenturez hitz egitea, baina ez dago sobera mahai gainean jartzea kontu politikoki zuzenak ez direnak eta kontu mingotsak.

#### **Gaiak ez ezik, bizitzako uneak ere zerikusirik izango du idazlearekin, ezta?**

Azken hamar urteak oso oparoak izan dira, liburuak bata bestearen atzetik kateatu ditudalako. Azken batean, orain dela 10-12 urte bihurtu naiz idazle, atzobertan. Atzerago idatzi nuen liburu bat, ez zuena izan inongo oihartzunik. Kontrara, *"Azalaren kodea"* lanak harrera ona jaso izanak oxigenoa eman zidan, eta oraindik irauten dit idazteko bulkadak.

#### **"Uneka... gaba" izeneko liburuaren izen lehenengo idatzitako liburu hori, ezta?**

Bai, 1986an argitaratua. Bertako ipuin asko aldizkarietan agertu ziren, hanhemengo literatur lehiaketetan sariak, literatura-lehiaketa apaletan. Sari handirik ez nuen inoiz irabazten, aurkeztu arren, eta egia, baneukan konplexu handi samarra, idazle eskasatzen zelakoan. Bazegoen hori koska bat, gainditzen ez zuena. Eta begira, gero, denborarekin, bilatu barik etorri zaizkit sariak.

#### **Liburu hori bizkaieraz idatzi zenuen. Zergatik utzi zenion bizkaieraz idazteari?**

Ez diot guztiz utzi. Kontua da gaur liburuak zabaltzeko zirkuitu normala euskara batuaren zirkuitua dela, irakurlego zabalari zuzendu nahi badiotzu testua. Ordukoa bizkaieraz idatzi nuen bildumaren ezaugarrietako bat euskalkia zelako. Gainera, bizkaieraz alfabetatu nintzen, seguruago sentitzen nintzen. Etxeko euskararekin joan

nintzen 17-18 urterekin Labayru ikastegiak antolatutako ikastaroetara, eta hantxe konturatu nintzen etxekoaren aberastasunez, eta gero, konparazioz, batua ikasi nuen. Bizkaieraz idaztea, dena den, ez zen izan jarrera ideologikoa. Liburuak argitaratzea eskaini zidatenean, hori zen baldintzetako bat, Labayru baitzen argitaratzailea. Beti esaten didate, eta uste dut hori dagoela gakoa, batuz idatzita egon arren, bizkaierazko hainbat hitz eta esamolde erabiltzen ditudala, batzuetan keza modura, gazteek eta: "Zergatik erabiltzen dituzu bizkaierazko hainbeste hitz, edo zure herriko lokalismoak, eta abar?". Ñabardura horiek guztiek edertu egiten dutelako corpus estandarra. Agian ez dut bizkaierazko aditza erabiliko, baina bizkaieraz idazten dut batuaren barruan.

#### **Ez duzu uste agian bizkaieraz idaztea edo nafarreraz idaztea, hizkuntzaren ondare handia mantentzeko modua dela, dena batuaz idatzi beharrean?**

Bizkaieraz osotara, edo zubereraz idazteko, edo beste edozein euskalkitan idazteko, badaude beste bitarteko batzuk, herrietako argitalpenak, adibidez.

#### **Ezin ukatu bizkaitarra zarenik, lekeitiarra. Zure lanetan begi-bistan edo ezkutuan beti presente dago Lekeitio.**

Nire eszenatoki nagusietako bat, batez ere gazteentzat idatzi dudanean, Garraitza da, Lekeitioaren izen literarioa. Idazle askotan bere bizitzatik edaten du, bere oroitzapenetik, berak ezagutu dituen lekuetatik... Paisaia atlantikoa eta kostunbrismo-printzak, dosifikatuak eta gaurkotuak, identifikatzen dira lan gehienetan. Oroimenak urre-kolorea ematen die oroitzapenei, eta iraganeko tokiak, pasadizok, pertsonak ederrago bihurtzen ditu. Oroimenak gehi irudimenak hartzitu egiten dute kontagarria izan daitekeena.

#### **Ama ere izan zara. Horren harira, ama izateak eragina izan du zure estiloan edo sorkuntzan...?**

Bai, ama nintzelako hasi nintzen, neurri batean, umeentzat idazten. Semea beste batzuen ipuinak irakurri ahal, ipuin horien "doinua" geratzen zitzaidan. Eta semearekin bizitako es-

du, pintzelkadak. Sormena errail asko dituen autobide bat bezalakoa da, eta errail bakoitzean hainbat testu mota, ideia, ahots, ibiltzen dira zirkulazioan, aldi berean.

#### **Poesia aipatu eta "Azalaren Kodea" eta "Bitsa eskuetan" etorri zaizkit burura.**

Biak dira poema-liburuak. Oro har, bietan lantzen dira maitasuna, tragedia pertsonalei neurria emateko ahalegina, gorpuztasuna... eta antzekotasunak egon arren, poetika diferenteetatik jorratzen dira. Batetik bestera hamar urteko aldea dago, eta hamar urteren ostean ni biografikoa eta ni poetikoa ez dira berberak.

#### **Har dezagun orain "Mila Magnolia Lore" liburuaren bertan heriotzaz hitz egiten duzu, nahiz eta umeentzako liburu izan. Uste duzu garrantzitsua dela umei heriotzaz, gaixotasunaz, indarkeriaz, eta horrelako gaiak hitz egitea?**

Uste dut txikitatik zabaldu behar zaizkiela haurrei gogoeta egiteko bideak, helburua doktrinatzeko izan gabe. Hau-



perientziak ere ideientzako iturria ziren. Gertatu zitzaidan gidabaimena ateratzen duzunean bezala: lehenengo alboan zoaz, kopiloto, baina gero zeu hasten zara autoa gidatzen. Gauza naturala izan zen, nahiko berantiarra, baina, bueno, oso gustura ibili izan naiz arlo horretan. Lehenago, andereño izan nintzenez, umeentzako ipuinak idazten saiatu nintzen, baina ez nuen lortu ezer ganorazkorik egiterik. Falta zitzaidan prestakuntza, irakurketa onak, ahotsa modulatzeko. Denak izan ziren saio frustratuak. Hogeitaka urte geroago etorri zitzaidan une egokia.

**Gatozen orain sarietara. Hainbat sari irabazi dituzu, Lasarte-Oriako Udaleko poesia saria, Euskadi saria, Espainiako Kritika saria... Baliagarriak izan dira idazten jarraitzeko ala errekonozimendu moduan hartu dituzu, edo, besterik gabe?**

Lehenengo aldiz hartu nuenean, izugarrizko poza sentitu nuen. Orduan idazle izan nahirik nenbilen, 2001ean. Epaimahai batek nire lana estimatzen jarraitzera bultzatu ninduen, segurtasuna eman zidalako. Ezin ukatu sariak bultzada bat izan direla niretzat, emozionalki, eta baita liburuentzat ere,

gehiago zabaltzen lagundu dietelako. Lan baten balioa aitortzeko moduetako bat dira sariak, erlatiboak izanik ere.

Sari handiena, dena den, Santutxun edo Lekeition umeren batekin kalean gurutzatu eta beren agurra edo irribarrea jasotzea da. Eta horien antzeko beste detaile batzuk. Ikastalde batekin zaudenean, beren egunerokoak, errezeta bitxiak edo olerkitxoak erakustea, marrazki koloretsuz hornituak. Edo irakurle baten mezua jasotzea, edo musikari batek zure hitzei musika ipintzea...

Sari horiek betetzen dute nire altxorkutxa. Beste sariak, erakundeenak, diru kopuru bat edota ospea ematen dutenak, lanaren aitorten praktikoa dira, inoiz ez erabat objektiboa, bultzagarri bat liburuen zabalkundeari begira. Batzuk nahiz besteak eskertzen ditut, guztiak eta bakoitza.

**Lehen liburutik zer nolako garapena izan duzu azkenera arte?**

Garapena atipikoa izan da. Lehen liburutik 1986tik gaur bitartean aldaketa pertsonal handiak izan ditut. Urte pila pasatu nuen Giltza argitaletxeko lanari buru-belarri emanda, hainbeste ze iritsi nintzen pentsatzera literatura idaztea ameskeria bat, espejismo bat, nire benetako bokazioa testuliburugintza zela. Izan nuen aldi estatiko luze samarra idatzi gabe. Ordea, 2000tik hona etenik gabe aritu naiz. Garapena, labur esanda, hobeto idazten ikasi dudala, eginaren eginez.

**Beti autodidakta ibili zara, ez duzu inoiz inolako prestakuntzarik jasoinon, inongo idazlerengandik, edo...?**

Gaztetxotatik idatzi dut. Akordatzen

naiz amari olerkiak eta egiten nizkio. Eta lagunak igande arratsaldeetan palan jokatzeraz joaten ziren bitartean, etxean geratzen nintzela ipuinak idazten, gustura egoten nintzelako gauzak asmatzen.

Literatura gustatzen zitzaidalako ikasi nuen Euskal Filologia. Miresten ditugun idazleak imitatu nahian jarduten dugu hasieran. Horixe da norberaren formula. Gero, zer lortzen dugun beste kontu bat da, norberarena norberaren erara egitea, estiloa lortzea.

**Zu gai zara zure burua korrante baten barruan kokatzeko, edo estilo baten barruan, edo ez duzu nahi?**

A zer galdera! Inoiz ez didate horrelakorik galdetu. Hemen bakoitza bere aldetik gabiltzalakoan nago. Etiketa bat jartzekotan, berrogeita hamar urteko emakume idazlea naiz.

**Bergarako idazle Eskolara ere etorri zara hainbatetan. Lehen egunen esan zenuen ez duzula gustuko eskolarik ematea, baina guri kontrakoa sentiarazi zenigun. Deserosotasuna barruan daramazu? Edo zergatik diozu deseroso zaudela?**

Iruditzen zaidalako epaimahai zorrotz baten aurrean nagoela, erakutsi egin behar ditudala jakituria eta argitasuna, ahoz, bertatik bertara; eta nire erritmoa bestelakoa da. Idatziz hobeto pentsatzen dut. Horregatik ez zait gustatzen ez tertuliertan ez mahai-inguruetan parte hartzerik. Gainera, motela naiz eztabaidarako, ez naiz eroso sentitzen.

**Amaitzeko, idazle izan nahi dugunoi zer aholku eman ahal diguzu?**

Aspaldi, Bergarako aldizkarirako bidali nuen halako errezeta antzeko bat. Aholku bat zen elikatzea, hau da, gauza onak irakurtzea, ezen horrela norbera ere berotu egiten da, edo abiapuntu batzuk topatzen ditu. Beste bat zen arriskatzea eta salto egitea, hau da, gai batek deitzen bazaitu, begiak itxi eta salto egitea eta leiala izatea egingdako hautuari. Hirugarren aholku bat, une ilunak izan arren, idatzitakoa inoiz ez botatzea; baliogabetu bai, baina ez guztiz deuseztu. Nahiz eta egindakoa kaka zaharra begitandu, baliteke denbora batera hartu eta zatiren bat edo berbaren bat salbatzea beste testu bati ekiteko.





## naizenak...

*Izurde* irribarretsu izango naiz  
 uretan jolasean, laztantzen nauzunean,  
 izan naiteke *inurri*  
 atsedetik gabeko lan ikusezinean,  
 edo *matxinsalto* saltaria  
 zelai berdeetan,  
 edo *sugandila*  
 eguzki izpien arrastoan.  
 Larrean patxadaz belarra jaten ari den  
*behia*,  
 txakur zaindaria atzetik etorri eta beldurtzen den  
*ardia*,  
 mendi tontorra urrun duen  
*ahuntz* bakartia.  
 Mendian behera hasi eta...  
 esku ahurrean itsasten den  
*amona mantangorria*.

**Uxoia Elustondo Arzallus**

## balinda

Bi hitzeko odolbildua  
 bihotz-garunean.  
 Bi hitz,  
 eta jo du iratzargailuak.

Zorigaiztoko bi konplizek  
 txikitu didate ametsa,  
 subkontzientea laztantzerako  
 jarria dut oskola.  
 Bi hitz,  
 eta natorren lurrera.

Bi aho zorrotzek  
 ebaki dizkidate hegoak;  
 kolpe batean, mutu  
 ez du zirkinik egin odolak.  
 Bi hitz,  
 eta patuaren zain berriz.

Ez dut oskol gehiagorik nahi,  
 dotokek ez baitakite hegan.  
 Ilusioa bor-bor behar dut  
 zirrarak mozkortuta oka egin,

eta bi hitzok bide-bazterrera bota.

Ezin dut

...

Ezin dut.

**Amaia Portugal Gonzalez**





## bota dut

Bota dut eta irakurriko duzu bihotzez  
 kai zaharreko ilunabar hartan paseatu genuela elkarrekin,  
 kresala usaintzen,  
 gure ezkon gaua izango balitz bezala,  
 malekoian,  
 malko zuritan.  
 Gaurko egun bustiak olerki busti hau ekarri dit,  
 elurpeko lore zuri eta txiki honen gisa loratu nahirik,  
 malko zuriak erori zaizkio zuhaitzari  
 urrezko euri hura gogoan.

*Ainara Maia*

## elurra ari du!

Elurrean zure izena dago,  
 nirea ere bai,  
 eta harena...  
 sinestezina!  
 Azpian dagoenaz ahaztu  
 eta gainazaleko geruzak  
 zorionez betetzen nau  
 garbi-garbi eta zuri  
 zuri irri keinuka  
 eta malkoak gain-azpian gelditu dira...  
 sinestezina!  
 Elur gainean ibiliz  
 azpikoaz ahaztu  
 eta penak ahaztu ditut  
 sinestezina!  
 Eta lagunei eskutik heldurik  
 beharbada irrist egin  
 eta besoetan hartzen nauzu  
 eta irribarre malenkoniatsua egiten dizut  
 ene lagun,  
 sinesten dizut iragana elurpean gelditu dela  
 eta elur gainean orain  
 mantso noalarik  
 ametsetan segitzen dut.  
 Elur gainean.

# hitzak

U  
r  
-  
z  
u  
r  
r  
u  
s  
t  
a

b  
e  
z  
a  
l  
a

u  
r  
b  
i  
d  
e  
a  
n

g  
a  
l  
t  
z  
e  
n

d  
i  
r  
a

b  
a  
t  
z  
u  
e  
t  
a  
n

hitzak                    a                    g                    y                    g

p j t g g f t f g x q t h j m h                    l p l

amñ g g h l ñ g x q g                    h u

j n Ñ h j

k r w y j h h d h x a n g g

d k l ñ g n K o n f g x q g r u ñ j

k g a g f g v dj h h d h x a n

g g d h



## lokarriak

Lokarri batek  
 zu eta ni  
 lotu gaitu.  
 Hasieran  
 lokarri motza,  
 estua eta  
 indartsua.  
 Zu eta ni  
 batera  
 zu ni zinen,  
 ni zu nintzen.  
 Gero  
 lokarria luzatu zen,  
 gu  
 bereiztuz.  
 Zu zinen.  
 Ni nintzen.  
 Azkenik,  
 hauskorra, finegia eta  
 ikusezina.  
 Zu hura  
 izatera  
 iritsiko ote?

Izaskun Etxebeste

Behar dut poesia  
 bizitzeko  
 eta behar(ko) dut hiltzeko

Behar dut poesia esateko  
 agertzeko  
 baina baita ere isiltzeko  
 gordetzeko

Ulertzeko  
 ezagutzeko  
 asmatzeko  
 ahazteko  
 poesia behar dut izateko  
 poesia behar, des-izateko

Zorion mozorroa  
 irribarrezko kareta  
 amaigabeko inauterian  
 -txaranga falta-

Zimur estaliak  
 malko margotuak  
 inauteri amaigabean  
 -garizuma gero-

Izenik ez duena ez da  
ezin dut imaginatu ere egin  
izenik gabeko ezer  
- izan bazen izendatuko zuten -

Baina izena duen oro  
ba ote da?  
badira imaginatu ezin ditudan izenak ere  
izan gabekoak

Loa da bakea  
da sosegua  
da arnasa

Zer gertatuko ote egunen batean  
ohean geratzen banaiz  
mugikorra itzali  
facebooka itxi  
eta atea ere itxi -  
badaezpada -

Munduak jarraituko du errotazioan  
eta translazioan  
zakarrak usteltzen

kotxeak abiadura muga gainditzen  
izateak sortzen  
izateak hiltzen

Eta - inori kalterik egin gabe -  
ni bakean  
ni soseguan  
ni arnasan

Batzuetan denbora kafea hartzen  
geratzen da  
hoztu arte kafea  
hoztu arte denbora

Kafearen bueltan  
denbora eta zu  
denboraren jiran  
zu, kafea

Zuregan kafea  
zuregan denbora  
-hoztu arte-



Nola esan bizi garela bizi,

zu eta ni  
garela bi izaki  
osagarri  
eta zu gabe ere  
banaizela ni

Ez dakit,  
hori esan nahi dut ozenki  
ez dakit nor naizen ni  
hori zioen duela ehun urte norbaitek  
eta duela berrehun ere bai  
eta duela mila urte  
ez dakit  
ez dakigu  
eta uste dugunean badakigula  
orduan askotan,  
gertatzen da,  
uzten diogu izateari

Ze gero... azkenean...  
beti dator ez izatea  
eta agian ahaztea

Hasteko berriro gurpila jiraka eta jiraka  
itsasoan olatuak beti etorriko direlako,  
egunak beti argituko duelako

Edo ez?

Harripeetan kabitzen ginen garaian izango zen

haitzek eta harriek eta harkaitzek  
lekukotzen gintuztenean

orduan zutituko ginen,  
utzi, kokorika ibiltzeari

lurretik urrundu  
eta aieratu.

Han izango zen, kobazulo haietan,  
han epelduko ginen,  
han eman ziguten bide  
gure arbaso emeen umetokiak

Eta ibiliko ginen garrasika, ujuka, deiadarka, oihuka, irrintzika...

Aiaiaiaiaiaiaiaiaiaiaiaia-ia-ia-iajaja!!!!!!

Eta gero... gero etorriko zen hitza,  
geurea, geure-geurea,

esateko eta izateko.

Hitzari esker  
aurrerantzean ez ginen izango  
izengabeak.

Animalia izatetik  
pasatu ginen izatera beste zerbaite...  
« besteak »  
ez-berdinak...

Zutik eta hizketan...  
Eta eskerrak!

Zeren hitzik gabe...

Nola izendatu,  
gauean, ilunpean,  
maindireen fereka daukagunean bakarrik,  
barruan akelarretzen zaigun beldurra...?

## biografia

NOR ZARA?

Zenbakia naiz ni.

Nor zara zu?  
Kantitatea baino ez.

Nor zara zu?  
Fisikoki neurgaitz.

Nor zara zu?  
Kantitatea: pisua, altuera, koipea, ura...

Neu naiz.

HIZTEGIA

Falta zaizkidan hitzak  
hiztegian bilatzen ditut.

Ezagutzen ez ditudanak  
aurkitzen saiatzen naiz.

Zalantzasakoak, ordea,  
non ote daude?

OSORIK

Osotasuna igarri gabe,  
piezen bila nabil.

Osatu.



## eguraldia nire bihotzean

Hotza

Esan dute hotza datorrela.  
Halere, aspaldi sustraituta dago nire bihotzean,  
urrun naukazunean.

Haizea

Esan dute haizea dabilela.  
Halere, aspaldi habia egina du nire bihotzean,  
zu ez zaudenean.

Sargoria

Esan dute beroa datorrela.  
Halere, aspaldi dabil narras nire bihotza,  
zurekin nagoenean.

Ekaitza

Ekaitza baretzen da,  
euria ateri denean,  
olatuak apaltzean,  
trumoiak lotaraztean.  
Halere...

Nire bihotzak bizirik jarraitzen du,  
bizirik dirauen bitartean.

## mudatzzen

Bufanda gorriduna izan naiz,  
pixkanaka badoan negu beltzean.

Eta izan nintzen, urte askoz,  
lepo altuko jertse marroiduna.

Eta ezpain gorriduna izango naiz,  
udaberri berdean.

Eta izango naiz ile gorriduna,  
uda urdinean.

Eta baita azazkal gorriduna ere,  
udazken hori-gorrixkan.

Eta gaur? Gaur nahiago nuke  
kameleoi, nahi dudanean kolorez mudatzeko.



## izan konfidantza

*Izan konfidantza nigan,  
erregutzen didazu,  
errezeloz begirutzen dizudanean.*

*Izan konfidantza gugan,  
xuxurlatzen zidaten lagunek,  
begiak estaltzen zizkidatenean.*

*Izan konfidantza nigan,  
agintzen dit amak,  
nire erabakiak hartzen saiatzen denero.*

*Izan konfidantza nigan,  
adierazi dit erizainak begiekin,  
orratza zainean sartu didanean.*

*Izan konfidantza gugan,  
azaleratu didate lepoko zelula onek,  
makinaren pantailan zelula txarrak agertu orduko.*

Nola izan konfidantza inorengan,  
nire gorputzak – neure buruak- ere  
traizio egin badit?



**Maitane Legarreta Etxezarreta**  
Argazkia: Imanol Zubiaurre Bengoetxea



# ukitu gabe laztandu

Ukitu gabe laztandu,

distantzian,

aurrez aurre.

Distantzian,  
mezuetan idatzi gabekoekin,  
telefonoko hitz isilduekin,  
eten      aldiekin.

Aurrez aurre,      *dar*  
prakei itsatsitako atzamarren *dar*-ekin,  
ihesean      doazen      begiekin.

Ukitu gabe laztandu,  
Orixek bere maite kutuna,  
semeak aita,  
irakasleak ikaslea,  
miresleak mirestua.

Ukituta laztandu,

bion argazki plastifikatua.





## hitzezko ozeanoa

naufragoa naiz noraezean igerian  
zerumugara begira etengabe  
hondoa ukitzeko beldurrez

itsas uretan galdua naiz  
puntu beltz bat orban urdinaren erdian  
zerua eta lurra urruntzen ikusi dituen

eta besakada bakoitzeko  
gehiago ala gutxiago behar dudan  
jakin nahiko nuke  
denbora atzean utzi  
hitzezko ozeano hau zeharkatu  
poema baten ertzetara aingurak bota



## hutsetik idatzi

Orri zuriaren aurrean hausnartu.  
Idazteari ekin poema bat idazteko.  
Izan garena ahaztu

deslotu  
desoroitu.

Memoria desegin

deserrotu.

Idazten ari garela kontzientzia galdu arte eman.  
Edota hartu

edota baztertu.

Ukatu

urratu.

Hutsetik idatzi.

Poema bat idazteko lehen urratsaren ondoren  
idazten jarraitu.

Idatzi

idazten

idazteko.

Muinera heldu arte idatzi

edota muinetik idatzi inora heldu arte.

Ahaztu inoiz idazten idatzi dugula.

Galdu inoiz idatzi dugunaren kontzientzia.

Idatzi dugun hori desoroitu

eta idazten asmatu.

Asmatu idatzi nahi dugun hori.

Poema bat idatzi lehenengo aldia balitz bezala.

Eta inoiz poema amaitu dugula uste dugunean

utzi denborak beregana dezan

ahaztu inoiz poema idatzi dugula.

Idazteari ekin poema berri bat idazteko.

Berriro ere galdu arte idatzi.

Galtzeko irrikaz izan idatzi duguna.

Izan garena ahaztu


deslotu

desoroitu.

Memoria desegin

deserrotu.

Hutsetik idatzi.



## leihotik I

*"agian zerua Itsaso zikina dela esanez"*

J. SARRIONAINDIA

leihotik itsasoa ikusten da  
ispilu erraldoia non zerua islatzen den  
kotoizko arrainak hegan  
ur tanta izoztuen geometriak

leihotik ikusten da  
ur azalean mendiak txoriak hiriak  
eta akaso zerua itsaso zikina da  
-edota halako zerbait-

Ikusten da irudimena estaltzen duen  
izara likidoa itsasoa  
islatu den mundu honetatik  
beste zerurik amestu dugunontzat  
ur eta gatzezko ohatzea

## leihotik II

leihotik ikusten da aharrausian bezala  
belusezko oihala astintzen haizea  
paisaia gainean idazten duen eskua

leihotik ikusten da denbora amaitzeaz dela  
zerua berunezko izara erraldoia  
lurrazala inarosten duen sosegu eza

jada besterik espero ez nuenean ikasi dut  
galsoroan isilak ebakia zaurian ernetzen urrea  
odolez idatzitako hitzak elkarri egindako zauriak

eta leihotik ikusita ere bizitzak min ematen du

*Ekhiñe Egiguren Azkune*



Urteak dira alanbre gaineko ariketak: pauso itzulezinak, besoak zabal, burua tente, begirada tinko. Aurrerantz.

## errepikaezinak

Gutxi dauzka bizitzak  
errepikaezinak:

Jaiotza  
D  
Dé  
Déj  
Déjà  
Déjà v  
Déjà vu  
Heriotza


*Irene Gil Legarra*

## bihotzean ditut lokarriak

Besteren ohean esnatzen den emakumea izan nahi nuke  
lorontzietan loreak zimeltzen uzten dituena  
etxeko postontziak gainezka egin arte desagertzen dena.  
Kaletik paseoan galdu eta ordua ezezagunei galdetu nahi nieke  
udazkeneko hostoak desagertu arte hirietako parkeetan oinutsik ibili.  
Dudan murgildu eta ihesi doazen trenetako billeteak erosi nahi nituzke.

Diodana baino gehiago izan nahi nuke  
uki dezakezuna baino gehiago.  
Baina beste gau batek harrapatu nau, hemen, nire baitan.  
Patuaren ostikada sentitu dut saihetsetan eta birikek denborari eutsi diote,  
arnasak errailetan habia egin bitartean.  
Nirea ez den denboraren minak malkotan urtu nau.

Zure ohea ez den ohean esnatu nahi duen emakumea naiz halere  
nirea ez den ohean oheratu nahi duena.



## arimaren melodrama zure begietan

Begira ezazu nire ohera .  
Zer ikusten duzu?

Gorpu abandonatuan  
arimaren melodrama eternoa,  
izatea izateari itsatsia.

Neu naiz maitia.  
Neu  
    neu biluzik  
        neu gordina.

Begira nazazu berriz  
eta eutsi  
negar egiteko gogoari.

# Des-egiten

## GOROSTARZU, Ione. Elkar. 2012

### Izatea/ des-izatea zelofanetan bildurik

*"Hemen nago orain / ene gorputza eta  
ene poemak/ ez naiz besterik"*

*Des-egiten* izeneko bere lehenengo poema-liburuan, hitz garbi bezain sendoetan paseatzera egiten digu gonbita Ione Gorostartzuk. Bidaia intimoa gorputzeko bazter guztietara: azal, bihotz eta hezurak agerian utziz. Emakumea izatearen gatazkan, bidean sortzen zaizkion ahulezien aurrean, harro ateratzen du poetak indarra. Sentimenduetatik bidaiatzera gonbita egiten digu, bidaia intimoa zein publikoa arimaren zirrikituetan zehar: "Banaiz ile -kizkur, luze- / banaiz begi -urdin, erne- / banaiz ezpain / eta banaiz azal // Banaiz esku -leun- / banaiz azkazal -gorri- / *piercing*-a txilborrean / eta tatuaje ezkutuan gordeak // Banaiz hitz -samur, gordin- banaiz ilusio eta desio / banaiz kezka, arazo / poesia eta musika // Batzuetan baina / titi eta alu bakarrik sentiarazten naute"

Takoi altuegietan eta zirriborratutako makillaje artean ezkutaturik, dagoeneko helduak direla sinetsi nahi ez duten ahotsak entzun ditzakegu. Heriotzaren beldur, heriotzari muzin eginez, heriotzaren begietara so. Amaierak goizegi heltzen direlako, maitasunean, bizitzan. Baina amaierarik gabe ez dagoelako hasierarik, ezta biderik ere: "Heriotza bizitzaren laguna da / eskutik helduta paseatzen dira / elkarrekin amodioa egiten // Baina guk heriotzari / zein bizitzari /ez ikusiarena egiten diegu". Dena den, heriotza heldu baino lehen, geure benetako izatea bilatzeko gauza askori egin behar diogu uko ibilbidean; Gorostartzuk hori transmititu nahi du poemetan, bizitzan nahiz idazketa prozesuan des-egiten goazela, hautu bakoi-tzean baztertutako larruazalak uzten ditugula bidean.

Poesia irakurtzea zaila egiten zaigu maiz, ederra izan arren, arrotz ditugulako hitzak. Ione Gorostartzuren poemak, ordea, hurbilak dira, lagun batek xuxurlatzen dizkizun hitzak bezala; sekretuak eta



konfidentziak kafe katiluen artean. Hala ere, bertsoak ez dira egitura sinplekoak, zainduak daude estilistika eta estruktura aldetik, zelofan ederrean bilduriko hausnarketa sakonak dira.

Poema-liburu hau bukaeraren hasiera besterik ez da; izan ere, Gorostartzuk urte askotan *des-egiten* jarraituko duela desio baitugu: "Eta banoanean / zer geratuko da? / Besarkada birtual bat / besterik ez // Eta banoanean / zer geratuko? / Azukre eta gatzezko uneak -espero- / besterik ez"

**Xabi Lopez**

# *Azken garaipena*

## ZALDUA, Iban eta Ribas, Julen.

Euskal Herriko Ikastolak, 2011

Urrea den guztiak ez du distirutzen. Erdialdeko Lurraldearen benetako jaunak esana. *Azken Garaipenaren* azala ikusi eta esaldia burura etortzea bat. Distirarik ez, baina nazien svastikadun zepelina ezkutatzen doan zeru iluna. Arrano inperiala etxe orratz luzeetan. Erdian, emakume ilehoria pistola eskuan. Potentea.

Naziek gobernaturiko mundua, 2052. urteko Germania. Sigrid Frisch tenienteak kasu bat ikertu beharko du: haur batzuek hilotz bat topatu dute hiriko ubide handian. Hilketaren arrunta? Larruz jantzitako SSko buruzagiaren presentziak, zigor eta guzti, kontrakoa dio. Autopsia gelan susmoak egia bilakatuko dira: hildakoak zilborra dauka! Pentsaezina haurrak purutasun zentruetan sortzen dituzten mundu horretan.

Historia alternatiboa? Zientzia-fikzioa? Nobela beltza? Hauek guztietatik jaten du *Azken Garaipenak*, baina gehiago da. Aspaldian, lan bateko osagai guztien gaineratik kontakizunak balio duela sinesten hasia nago, eta Zalduak istorio benetan aparta aurkeztu digu. Ribasek, berriz, irakurleak komikiaren barrura jauzi egitea ahalbideratzen du, kontakizuna bizitzea. Bikaina, emaitza.

Ni behintzat ez naiz sekula nekatuko komiki txatxu hauek irakurtzeaz.

**Urtzi Leonet**



# Leturiaren egunkari ezkutua

**TXILLARDEGI.** Bilbo: euskal-idazlanak, 1957. Elkar, 1995

Goiko apalean topatu dut, kokapena dela-eta existitzen direla ere ahaztu ohi dugun liburuak egoten diren lekuan. Aspaldian berriz irakurri ez ditudan beste batzuekin batera zegoen hura ere; ahanzturara kondenatua, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*. Kontuak atera eta duela hemezortzi bat urte irakurri nuela ohartu naiz. Erraz esaten da; hemezortzi urte. Halere, lehen orriak ireki ahala, liburu berri baten aurrean nagoela iruditu zait; oroitzapena baino gehiago aurkikuntza berri bat izango dena eskuetan dudala.

Lagun batek esan ohi du liburuak ez direla sekula berriz irakurtzen, irakurraldi bakoitza desberdina dela eta beraz, beti bizi ditugula liburuak lehenengo aldia balitz bezala. Izango du arrazoi apur bat; liburuan murgiltzearekin batera argumentua ezaguna egin zaidan arren, beste hainbat xehetasun topatu baititut ustez lehenago sumatu gabeak.

Izenburuak dioen bezala, eguneroko bat da irakurleak liburu honetan aurkituko duena. Joseba Leturia gazteak Mirenekiko bere maitemina deskribatzen du bertan, bere ezin egona, bere zalantza existentsialak. Egunerokoa izanik, gertakariak baino gehiago protagonistaren barne eztabaidek dute garrantzia testuan. Denok ulertu eta sentitu ditugun egoerak deskribatzen zaizkigu, gai unibertsalak dira hemen aurkitzen ditugunak. 1957. urtean kaleratu zuen liburua Txillardegik, eta aitzindari izan zen gurean, hiri handi industrialari jarri baitzuen idazlanaren agertoki bezala.

Egitura aldetik, lau zatitan dago banatua; Udalehena, Uda, Udazkena eta Negua. Urtaro bakoitza Leturia gaztearen egoera animikoarekin dago lotuta. Guztiak *berria* zen euskaran idatziak, hizkuntza modernoa darabil autoreak. Narratiba mailan ere, eredu berri baten sortzaile kontsideratu izan da.

Hitzaurreri gainbegirada eman eta Koldo Mitxelena hitzok bereganatu dute nire arreta; *“ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larrik, horren zinezko aitortik, horrenbesteko ka-*



*rraxi sarkorrik. Ez dugu sekula egin, hitz batean esateko, Leturiaren bezalako ibilaldirik gogobideetan barrena.”*

Hitzok aurreikusten duten bezala, liburu hau mugarri izan zen bere garaian. Batetik, garaiko literaturan haustura eragin zuen; gaiagatik, erreferentziagatik (Sartre, Gide, Camus...), giroagatik eta baita tonuagatik ere. Existentsialismotik gertu, gizon europarra da aurkezten zaiguna, zalantzez betetako euskaldun hiritarra, Leturiaren barne mundu gatazkatsua. Atzean utzi zituen eguneroko honek garaiko *euskaldun fededuna* protagonista zuten eleberriak. Lizardi, Orixe, Txomin Agirre eta beste hainbaten idatziekiko aldaketa suposatu zuen. Landa lurretik hirira ekarri zizkigun Txillardegik euskal letrak. Lehenago inork egin ez zuena lortu zuen idazleak, gazte urbanoa ezartzea euskal irakurlearen begien parean.

Bere lekura itzuli beharrean nahiago izan dut *Leturiaren egunkari ezkutua* leku eskuragarrian uztea, amaitzear dudana beste liburu baten azpian, adibidez. Ahaztu baino lehen, lehenengo aldia balitz bezala bizi dezadan. Zirrargarria baita eguneroko hau irakurtzea, bai idatzita duenagatik eta baita hura idaztean idazleak sentitu ahal izan zuen askatasun arnasagatik ere.

**Ekhiñe Egiguren Azkune**

# Eta orain badakit

IRASTORTZA, Tere. Pamiela, 2011

Poesia irakurtzea gustuko dugunok aspaldian espero genuen Tere Irastortzaren azken poema liburua. Duela bederatzi urte irakurri genion aurrekoa eta jada, bere ibilbide poetiko sendoaren jarraipena den urrats honen zain geunden irrikaz.

*Eta orain badakit* honetan, poesia helduaren aztarnak eta poeta ibiliaren hausnarketak topatuko ditu irakurleak. Bizi izanak utzitako sentipen horietatik osatutako hitz koadroak, esperientzia pertsonaletik marraztutako mihiseak, hurbilekoa oinarri harturik gai unibertsaletara jotzen duten poemak. Isiltasuna, erritmoa, soinua, mina, heriotza, denbora, gorputza, zoriontasuna. Galderak eta galdera horiei topatutako erantzunak: *"Eta nago ez garena sentitzea ere izateko era bat dela, /sentitzeak ere eratzen gaituela"*. Gaiak ez dira errazak, hainbat esan nahi garratzak dira sakonean eta halere ez da poema liburu tragikoa esku artean duzuna, irakurle. Zoriontasunari eta zoriontasunean mintzo da; zoriontasunak dituen ertz zorrotzetatik idatzitako poemak dira: *"Ziur-renera, orain, / ondo dakigulako, / izan, zorionagatik bakarrik garela zorigaitzerako prest"*.

Poema bakoitza pieza bat den arren, behin amaiera heltzen denean, liburu osoa poema bakarra den sentazioa izan dut nik. Poemak harilkatzeko moduagatik, idazleak guztietan bateratzea lortu duen tonuagatik, ondo jositako orriak dira hauek. Idazkera hurbilekoa, epela, irakurleari gonbitea luzatzen diona. Eta esaten direnak, esaten direnagatik zein esateko moduagatik, gogoan iltzatuta geratzen dira, irakurlea harrapatzen dute.

Ederra da Irastortzaren poesia. Oinarri finkoak ditu, dardara eta zalantzarik gabea da. Alferrikako hitzari ihes egiten dio, idazkera sendo eta benetazkoaren mesedetan. Muinera heltzen da, pentsamenduaren eta sentimenduaren hondora, zentzumena zulatzen duten geziak dira poemak. Dudarik gabe, irakurleak gozatzeko idatzitako liburua da hau; nik gustora eta plazeraz irakurri dudana. On dagizula zeuri ere.



\*Aitor Furundarena musikariaren laguntzaz idazleak emandako zuzeneko emanaldietan ere entzun daiteke poema liburu hau.

Ekhiñe Egiguren  
Azkune



# *Usoa, hegan etorritako neskatoa*

ZUBIZARRETA, Patxi.


BALZOLA, Asun. Erein, 2008.

Haur-gazte literaturan ere hain uzta oparoa eman digun idazle honek *Usoa* esaten dioten Kasai neskatoaren sabeleko inurriez hitz egin digu *Usoa, hegan etorritako neskatoa* ipuinean. Inurriak sentitu dituelako andereñoaren hitz poto-lo eta gogorren aurrean.

Inurriak, gora eta behera, ama on batek izan behar duenaz ari baitzaie hizketan andereñoa; inurriak, andereñoaren moral eta etika hegemonikoak seinalatu egin duelako bere Afrikako ama, bi ama dituelako Kasaik, bata Afrikan eta hemen bestea.

Afrikarra baita sortzez gure Kasai, artean umetxoa zela, amak hona zertorren hegazkin batean abandonatu behar izan zuen neska. Eta oso argi du Kasaik, edo Usoak, hegan etorri zenez hemen denek deitzen diotelako *Usoa*, bere arrazoiak izango zituela erabaki kontziente hark. Horregatik egingo dio bihar aurre andereño aho handiari, autoritateari, eta lasai geratuko da.

Usoaren inurriez eta amatasunaz, batez ere amatasunaz edo, hobeki esanda, amatasunez ari zaigula esango genuke, ipuinean erakusten den amatasun aniztasunak amaren gaineko irudi eta estereotipo asko irauli eta eredu berriak aldarrikatu dituelako. Batetik, alaba baten abandonua genuke eta, bestetik, alaba baten adopzioa. Amatasunaren eredu berriak proposatzearekin batera, amatasuna bizitzeko modu ezberdinak aurkeztu ditu eta, horrela, kolokan jarri emakume izatearen ustezko ezaugarri naturalizatuak. Horregatik erakutsi nahi izan dizkigu, andereñoaren pertsonaiaren bitartez, eredu tradizionalaren irudiak, eragina eta indarra. Izan ere, proposamen berriak egiteko ezinbestekoa baita gibleko eredu berri ematea.



Idazketa bidez amatasun eredu berriak sortzeak ezinbestean zabaldu nahi du generoa berridazteko eta irakurketa berri zein aldarrikatzaileak proposatzeko bidea; literaturak, errealitatea deskribatzeaz gain, aldarrari eta gogoeta eremu baden heinean, errealitate bat eraikitzen duelako.

*Alaitz Andreu*



# Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa



## GRADUONDOKOAK

- Idazle Eskola
- Eusko Ikasgaiak
- Hizkuntza Plangintza
- GNU/Linux - Software Librea
- Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterra

## ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

- Haurrak eta musika: ikasten eta irakasten
- Eskola kiroleko monitoreak

Tlf: 943 21 23 69

<http://www.asmoz.org>



Irene Gil

## «Karmele Igartua Sorkuntza-Beka»

Ekainaren 3an egin zen Idazle Eskolako Bekaren sari banaketa ekitaldia. Aurreko ikasurteetako sari emateekin alderatuz, azken honek izan zuen berezitasunik. Izan ere, iaz zendu zen Karmele Igartua Bengoa poeta eta Idazle Eskolako kidearen omenez "Karmele Igartua Sorkuntza-Beka" izena eman zaio sariketari.

Iritzi-dibulgazio alorrean Irene Gil 1. mailako ikaslearen "Hondar aleak paperean nola..." lanak eskuratu zuen saria. Poesian berriz, lone Gorostartzu, 2. mailako ikasleak jaso zuen beka "Des-egiten" lanarekin.



Lone Gorostartzu  
«des-egiten» liburua eskuan duela.

## AGERKARIETAN GU

### 2011ko udan ZAZPIKAN

7ka aldizkarian Udako orrietara iritsi zen Bergarako Idazle Eskola, eta udako ipuinak argitaratu zituzten, hiru hilabetez. Hamahiru ipuin, guztira, Kristina Fernandezek irudiek.



## FACEBOOKen ere ematen du aurpegia Bergarako IDAZLE ESKOLAK

Udan abiatu zen froga modura... eta dagoeneko 1.000 kiderekin badugu adiskidantza. Idazle Eskolako berri zabaltzeaz gain, literaturaren inguruan interesa duen jende anitz biltzen da gure orrira.

# Ikasturteak eman duena



## IRAILA

Irailaren 15 eta 16an ospatu ziren *Creative Writing and Literary Theory*, Europa mailako jardunaldiak Pragan. Hilaren 16an Bergarako Idazle Eskolari buruzko hitzaldia eskaini zuen ikasle izandako **Ainara Maiak**. Bere esperientzian eta bizipenetan oinarrituta Idazle Eskola zer den azaldu zuen.



## URRIA

Urritik aurrera IDAZLE ESKOLAK bere tarteak eman ditu astelehen goizero **INFO7 Irratiko Goizko Magazinean**. **Dolza Barandiaran**, IDAZLE ESKOLAKO kideak zuzentzen du magazina. Eta astelehen goizero literaturari eskainitako saioan, Bergarako Idazle Eskolarekin lotutako sari, ilunabar eta hitzaldien berri ematen du. Badakizue-internet bidez edozein tokitatik eskura dezakezuela. Baina [www.idazten.com](http://www.idazten.com) orrian ere entzun ditzakezue saio hauek.

### Carmen Valois

Oihenart Aforismo I. Lehiaketan finalista gelditu zen "Dorotea Hiribarren" izeneko aforismo bildumarekin.



## AZAROA

Tolosako Bonberenean, Literatura & art astearren barnean, ospatu zen Idazle Eskolako 2011-12 ikasturteko lehen Ilunabar Literarioa.

Azaroaren 12an, ORIXEz OREXAN, **Paulo Iztueta** gidari genuela IDAZLE ESKOLAKO gradu-ondokoaren barruan aurten EUSKARA JATORRIAN izenburupean antolatu diren IDAZLEAK IRAKURLE MINTEGIEI OREXAN eman genien hasiera.

Bergarako IDAZLE ESKOLA izan zen GAZTEZULOKO protagonista. **Maitane Legarreta Etxezarretak** egindako elkarrizketa eta erreportajea medio.

**Yoseba Peñak** irabazi zuen Zumaia-ko 24. edizioko Julene Azpeitia Ipuin-sariketa, «*Pantera elurretan*» ipuinarekin. Ipuin honek Tomás Ormaechearen azken ordua xehatzen du, zehatz-mehatz urrezko ezteien ospakizunetan bihotzekoaren lehenengo sintometatik heriotzaraino. Yoseba Peñak 2010ean poesia alorrean irabazi zuen saria IDAZLE ESKOLAKO Bektan, «*Pantera elurretan*».



## ABENDUA

**Izaskun Etxeberriaren** narrazio berri batek jaso zuen Agurainen lehen saria. «*Negukoa ematen zuen udazkeneko gau hartan*» ipuina saritu dute Aguraingo Eskualdeko Narrazio II. Lehiaketan.



«*Lepoa erakusteko eskatu zion*» protagonistak, eta **Izaskun Etxeberriak** irabazlearen lepoko-zapi, mantal edo txapela irabazi zuen, Berriobeitiko Udalak antolatu zuen III. Literatur Erotikoen Lehiaketan.

## Ikasturteak eman duena



**Ione Gorostartzuk** irabazi zuen LAUXETA poesia Sariketa. Abenduaren 3an, Euskararen egunean, izan zen sari-banaketa.

XXVIII. SATARKA POESIA SARIA **Ekhiñe Egiguren**entzat aurtengoan ere. Abenduaren 17an, izan zen sari banaketa Hondarribiko Udaletxeko Aretto Nagusian eta ekitaldian nabarmendu zutenez, epaimahaikideak gustura azaldu dira aurkeztu lanen maila eta emaitzekin.



## URTARRILA

Aretxabaletako Loramendi Elkartek **Karmele Igartuaren** poesiari buruzko hitzaldi-irakurraldia antolatu zuen. **Tere Irastortza** idazleak gidatu zuen Karmele Igartuaren poesia irakurketa, poesia irakurtzerakoan sortzen diren galderei eta kezkei erreparatuz, eta batez ere, Karmele Igartuaren estiloari buruz hitz eginez.

**Azpeitiako EMAKUME TXOKOAN** Idazle eskolak **ILUNABAR LITERARIOA** egin zuen han Urtarrilaren 25ean. EMAKUMEA, EME ETA SORTZAILA izenburupean idatzitako gure lanak irakurri genituen.



## 2012tik aurrera

Bergarako herritarrek Idazle Eskolak antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzeko laguntzak izango dituzte.

Idazle Eskolak idazten eta ozenki irakurtzen trebatzeko ikastaro laburrak eskaintzen dihardu 2011-12 ikasturtean zehar Bergarako UNEDen. Iritzi-artikuluari eta poesiari eskainitako moduluan, ipuinak idazten ikastekoan, antzerkikoan eta ozenki irakurtzen trebatzeko moduluan parte hartu ahal izan dute bergarrek.

Bai moduluetan eta bai IDAZLEAK IRAKURLE MINTEGIETAN parte hartzeko interesa duten bergarrek dirulaguntzak izango dituzte Bergarako Udalaren eskutik. Laguntza matricularen %75era artekoa izan liteke lana dutenen artean eta %100era artekoa ikasle eta langabeen kasuan.



**Bergarako Udala**  
EUSKARA

# Ikasturteak eman duena

## OTSAILA

Ekhiñe Egiguren, Bergarako IDAZLE  
ESKOLAko bigarren mailako ikasleak,



irabazi zuen Bergarako AMODIOZ-  
KO GUTUN LEHIAKETA.

## MARTXOA

Elkar argitaletxeak **Ione Gorostar-  
zuren** (Berastegi, 1984) lehen poesia-  
liburua aurkeztu zuen, "des-egiten"  
izenekoa. Eta Martxoaren 15an aur-  
keztu zuen lagunartean, Tolosako  
Errota tabernan. Berarekin aritu ziren



Otsailaren 15ean, *Eta orain badakit Itsaso kontra bat* liburuaren aurkezpena egin zen Donostiako Koldo Mitxelena. Aldez aurretik Aretxabaletan, Donostiako Udal Li-  
buruko Sotoan eta Beasainen aurkeztu ziren Tere Irastortza eta Karmele Igartua-  
ren liburuak. Guztietan jende asko erakarri zuen poesia, musika eta irudia elkar-  
tzen duen emanaldiak. Aurrekoetan bezala, **Karmele Igartuaren** *Itsaso kontra bat*  
(Pamiela, 2011) liburuari ahotsa **Itziar Gomezek** jarri zion. Aurkezpen horretan  
izan zen, gainera, **Tere Irastortza** ere eta bere *Eta orain badakit* liburuako poemak  
irakurri zituen. Molde honetan, Karmele Igartua eta Tere Irastortzak batera zuten  
egitasmoa burutu zen, zeinetan, elkarren irakurle ziren bi idazleren lanak batera  
aurkezten diren. Hendaian egin zen azken aurkezpena martxoaren 24ean.

## APIRILA

EUSKAL Herriko hainbat herri eta hi-  
ritara iristen ari da Idazle Eskolaren  
ilunabar literarioen formula.

Apirilaren 23tik 26ra Beasaingo Ika-  
stolan ikasle, guraso eta irakasleen ar-  
tean antolatzen den IV. LIBURU FES-  
TAn, **Irene Gilek** 7 eta 8 urteko ikas-  
leentzako sortutako ipuina irakurri  
zuten apirilaren 24an, eta apirilaren  
26an. 17 lagunek irakurri dituzte bes-  
te hainbat bakarrizketa, **Itziar Go-  
mezenak**. Itziar Gomezek bakarriz-  
keta hauetako batzuk *Beterriko Libu-  
ruan* argitaratuak izan dira. Eta hu-  
rren goa **Izaskun Etxeberriaren**  
ipuina bat argitaratuko dute.

APIRILAREN 26an, Txekian, GERNIKA  
Ilunabar literarioa. Gernikako bon-

bardaketaren 75. Urteurrenaren ka-  
rietara, kristalezko zelaiko ganbaran  
edo Café Sklenena Louka-n bildu gi-  
nen hogeita lagun, tartean nire ikas-  
le txekiar zenbait eta lagun batzuk,  
iragan apirilaren 26an, ostegunean,  
arratsaldeko 7etan, eta 8etan hasi ge-  
nuen ilunabar literarioa olerki elea-  
niztun batekin. Olerkiak GERNIKA zuen  
izenburu.

APIRILAREN 28an BARAKALDON izan  
da Ilunabar Literarioa, aurrenekoz Biz-  
kaian! Gaia «*Niez naiz...!*» Clara Cam-  
poamor Kultur Etxean.

**Amaia Artolazabalek** (Zumarraga,  
1981) irabazi du Urretxu-Zumarraga-  
ko Bertso Eskolak deitutako bertso  
sorkuntzako lehiaketa. *Otamotz* al-

dizkarian hainbat lan argitaratu du  
eta Ikastolen Elkartearen dihardu ma-  
terialgintzan. IDAZLE ESKOLAN aritua  
da, bera ere.



## Ikasturteak eman duena



Hatsa elkarteak *"Hatsaren poesia 2012"* liburuaren aurkezpena egin zuen Senpereko Larraldea etxean. Honela egin zuen Ainara Maiak HATSAREN POESIA EGUNaren deskribapena, bere liburu-iruzkinean:

"Bai segur gira poesia, bizia bezala, etengabeko iraultza bat dela. Horrela aurkeztu zuen Auxtin Zamorak hamau-lagarrenez prestatutako Hatsaren Poesia anitz hau, gure eskuetan brist-braust desagertu zaigun amets bat, eta ttipatta ttipattaka ttiu ttiuttaka zuregana airatuko den haize leun bat txistuka ene bihotzetik. Poesia ez baita sal-tzen, poesia doan banatu behar da."

Eta liburu bete-bete honetan, 106 olerkari eta 4 eskoletako haur eta gazte sentiberak hartu du parte. Eta horien artean Bergarako Idazle Eskolako kideak diren **Juan Mari Apaolaza, Adriano de Mata, Ekhiñe Eiguren, Itziar Gomez, Ainara Maia, Carmen Valois** eta **Iker Zaldua**.

## MAIATZA

**Yoseba Peñak** SUSArekin argitaratu du bere lehen nobela: *«Hodeien adorea»*. Zorionak!



## EKAINA

Ekainaren 2an emango dira ezagutzera II. KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKArekin irabazleak.

Ekainaren 7an ILUNABAR LITERARIOA burutuko dugu Elgoibarren, Bergarako Idazle Eskolako kideak eta hainbat idazle elgoibartar tarteko.

Zumarragako Ilunabar Literarioan aurkeztuko dugu *Luma Berrien Eleak* aldizkariaren 10. zenbakia ekainaren 28an. Ohore handia izango da guretzat.



**ALAITZ ANDREU**

Alaitz (1986, Bilbo – 2004, Gasteiz - ...?) naiz eta mamia txikitu gabe intxaurrak hausteko mila modu probatu ditut. Balio, bakar batek ere ez. Eta ez zaizkidalako Eroskiko laborategiko horiek gustatzen jaten dut intxaurren mamia puska-puska eginda.

Batzuetan gertatzen zait, erabilitako indarra ondo neurtu ez edota intxaurren angelu okerrarekin asmatu ez dudanean, bat-bateko hegalaria ekiten diola zatiren batek. Eta lurrajotzen duela zakarrontzian sartzen ez bada.

Bada, lurreratze ona duten horiek dira nire kutunenak.

Hitzekin ere gauza bera gertatzen zait.



**ODEI ARREGI**

Azkoitian hasi nuen bidaiaria. Gasteiz, Granada, Buenos... eta beste hainbat geldialdi egin ditut, azkenengoa Ataurin, hurrengoa auskalo.

Bidean, Artearen Historian lizentziatu eta zirkoaz eta an-

tzekiaz maitemindu naiz.

Azken hauek dira nire ogibidea orain.

Literatura bidaikide dut hasieratik eta hemendik aurrera ere hala izango da.

Baina ez naiz hau bakarrik.

Eta hau ere banaiz.



**ADRIANO DE MATA**

Adriano De Mata, 1984ko abenduan Deustun (Bizkaia) jaioa eta 2002tik Deustutik desagertua: Gasteizen Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi eta hizkuntzak, batez ere hizkuntza txikiak, gustuko izatea aitzakia aproposa denez, munduan hainbat tokitan bizi izan naiz orduetik. Itzulpengintzaren eta hizkuntza-irakaskuntzaren artean dantzan, orain idazle-gaia ere banaiz. Itzulpenen bidez besteek sortutakoa adierazteaz gain, nik neuk esateko dudana ere adierazteko.



**EKHIÑE EGIGUREN**

Donostia.  
Bizioa: irakurtzea.  
Ilusioa: idaztea.  
Ofizioa: arkitektoa.  
Afizioa: arkitektura eta literatura.



**UXOA ELUSTONDO**

Sakontasuna eta alaitasuna uztarturik jaio nintzen. Donostian, 1986ko abuztuaren 1ean, ostiralean, goizeko 8:30ean. Villabonara egin nuen jauzi hiru egunen buruan, eta Bidaniako eta Goizko baserrien, animalien eta paisaien goxotasunek jantzi ninduten.

Gutun zalea izan naiz beti. Idatziz nire gauzak kontatzea maite dut, hobeto adierazten naizela esango nuke, eta gauza ederrik ateraz gero, gozatzen dut, zorutzen naiz eta maitemintzen naiz.



**IZASKUN ETXEBESTE**

Anoeta izeneko herrian jaio nintzen. Garai hartan herri txikia zen oso, eta han bizi ginen haurrak ere oso txikiak ginen. Horregatik bidali gintuzten fandangoa eta estilo horretako dantzak ikastera, hazteko metodo ona zelakoan. Ederki pasa genuen eta itzuli ginenean pixka bat altuagoak ginen.

Beranduxeago idazten kaiteatzen nintzela konturatu nintzenean Bergarara joan nintzen. Hango idazle eskolan bi ikasturte egin ditut. Ederki pasa dut eta itzuli naitzenean, han ere, beste apur bat hazi naizela konturatu naiz.



**HAIZEA GALARRAGA**

Bizitzan kasualitateak gutxi dira. Normalean denak du arrazoi, jatorri edota azalpenen bat. Nire izena Haizea izatea ere ez da kasualitate hutsa; nire izaera aztertuz ikus baitaiteke zoragarri datorkidala! Haize bolada ikaragarri baten antzekoa naiz, nortasun handikoa eta odolberoia oso. Nire bizitza liburu ireki bat da, kapitulu anitzez osatua dagoena. Aurreko kapituluaren Lehen Hez-



kuntzako irakasle bihurtu nintzela irakurri nuen. Orain Euskal Filologiako master bat ikasten dudala dio liburuak; Idazle Eskolan gozatzen dudan bitartean. Eta bihar zer? Pixkana joango da sortzen liburuxka eta momentuz, zain egongo naiz, hurrengo pasarte noiz idatziko den zain.



### IRENE GIL LEGARRA

1965ean jaioa, txikitik do-nostiartutako tolosarra. Lan-bidez administrari Osakidet-zan, afizioz "ikasle".



### IDOIA GEREÑU

Handiak txiki eta txikiak han-di gertatu izan zaizkit beti. Errazak zail eta zailak erraz izaten jarraitzen du... Hala-koxea naiz, perfekzio erral-doiaren atarian perfekzio txi-kien labirintoan galtzen den txoria. Perfekzioen bila-keta eremuan beti ere, bai-na txoria.

Gorroto dut aspertzea, gu-txitan asperten naizen arren.

Gorroto dut nagikeria, sarri-tan harrapatzen nauen arren.

Zuri eta beltzaren arteko bo-rroka, huraxe naiz.

Naiz, edo hala sentitzen naiz!



### ITZIAR GOMEZ

Errenteria-Irun  
Bikoizlaria, gidoilaria eta  
idazlegai.  
Hitzen amaraunean  
trabatuta  
Idazle Eskolak eman dit  
bizia.



### IONE GOROSTAZU

Berastegi, 1984  
Bizitzaz idatzi. Idatziaz, bizi.  
Bizitzeko idatzi. Idazteko  
bizi.  
Bizitua idatzi. Idatzia, bizi.  
Bizitzatik idatzi. Idaztetik  
bizi.  
Bizi. Idatzi.



### MADDI IÑARRA IBARGUREN

Maddi Iñarra Iburguren naiz. Matrix-eko pilula gorria eta urdina, biak, hartu zituena. Egunkaria ia beti atzetik ha-sita irakurtzen duena baina, batzuetan, baita aurretik ha-sita ere.

RH negatiboduna eta jarre-ra positiboduna.

Ilea zaindu eta azazkalak tor-turatzen dituena.

Gauza berriak ezagutzea mai-te duen ohiturazale amorra-tua.

Maddi Iñarra Iburguren naiz. Libra.



### LIDE IPARRAGIRRE MERCERO

1988. urtean jaioa, itzulpen-gintza ikasketak amaituak, ingeleseko irakasle gisa la-nean, beti nirea ez den hiz-kuntza baten lanketan eman dut bizitza. Irudi eta hitzetan oinarritu izan da nire egu-nerokotasuna. Behin, ingu-

ratzen ninduten gauzen edertasuna agertzeko be-harra sentitu eta kamera bat erosi nuen. Orain, nire hiz-kuntzan irudi horiek trans-mititzen dutena adierazteko nahiari jarraiki, Idazle Esko-laren eskuetan ipini naiz, ea barruan dudan guztia hus-ten irakasten didaten, lotsa-tia naizenez, uste baino gehiago kostatzen baitzait.



### MIRYAN IRASTORTZA

Miryan Irastortza San vici-n-te (1982), Legazpiar gasteiz-tartua.

Nor naiz ni? Emakumea, fi-lologoa, irakaslea, garagar-dozalea, txikia, Hala Bedi irra-tiko kidea, lagunaren laguna, ipurtarina, irakurle amorra-tua...

Horietako bakoitzetik, behin-tzat, badaukat zerbait (eta aipatu ez ditudan beste as-kotatik ere bai). Laburrean deskribatzerik ez dut, eran-tzunaren bila ari bainaiz oraindik.



**MAITANE  
LEGARRETA  
ETXEZARRETA**

Udaberrian Donostian jaioa. Beasainen hazi eta hezitakoa. Seguran jolastu eta amestutakoa. Goierritarra eta euskalduna. Udazken eta udaberri zalea. Napoka Iriaren jarraitzaile sutua. Irlanda maite, eta Eskoziara joateko gogotsu dagoena. Logelan abestean, gustuko kantak hondatu, eta bizilagunak ernegatzen dituena. Filmak, liburuak, bertsoak, abestiak eta telesailak elikagai dituen.

Mingainarekin esan gabe koak axota edo teklek in kon-tatzea gustatzen zaiona.



**URTZI LEONET  
SANTA CRUZ**

(Astigarraga, 1982)

Txikitatik ilargiak erakarri nau, baina berarekin hitz egin ezin dudanez, bihotzarekin idazten diot, noizbait nire hitzak iritsiko zaizkion itxaropenez.



**AINARA MAIA**

Irungoa naiz, baina orain Bronn bizi naiz, Txekian, ekainera arte.

Hogeita hamabost urte ditut eta ogibidea euskararen irakaskuntza unibertsitatean, ikasketez euskal filologoa naiz eta.

Idatzi beti egin dut, idazten ikasi nuenetik hitz solteak, nerabegaroko egunerokoa, gaztaroko olerki maiteminduak, biziminaren txinparten istorioak gero... Idazten ikasi aitzin, bi eskuetan margoak hartu eta marrazkiak egiten nituen, hori zen txikitant gehien gustatzen zitzaidana.



**ISABEL MARTIN**

Irribarrea dut ahoan.

Sabelean mina.

Ahula naiz askotan baina

beldurtia gutxitan:

Ebano izan nahiko nuke

luzaroan bizitzan.



**IÑAKI ODRIUZOLA  
SUSTAETA**

Elgoibartarra. 1961ean jaioa. Filosofia irakasle Elgoibarko institutuan.

Antzerkilari ohi eta idazle amateurra.

1982an Elgoibarko 1. Etxepe Saria eta 1994an Bilboko Central Hispanoko "Imagina ezazu Euskadi" saria, poesia arloan.

Idazle eskolako ikasle ohi.



**AMAIA PORTUGAL**

Donostiarra batzuetan, egia-tarra bestetzueta. 1984an jaioa. Kazetaria naiz bokazioz, ikasketaz eta, zorionez, edo, ofizioz. Hala ere, behin edo behin galdetu izan diot nire buruari ea jendea (des)informatu nahiak baino gehiago, ez ote nauen idazteko grinak eraman prentsan lanegitera. Eta horri erantzuten ez dakit.



**CARMEN VALOIS**

Idazle Eskolako ikasle ohi: "Idaztea testigantza ematea da".



**UDA HONETAN**  
Idazle Eskolako ikasleen lanak  
igandero **7K**-an, **GARA**-ren aldizkarian



Euskal herrian eta euskal herrirako egindako igandekari bakarra



## Urte osoan bizi dugu kultura.



Artea, musika, literatura...

Gipuzkoan kultura bizi dugu barren-barrenetik. Eta **Kutxaren Gizarte Ekintzatik** kultura bultzatzen dugu, urtean zehar antolatzen diren jarduera eta ekitaldi ugari babestuz.

Era guztietako kultura-adierazpideak bultzatzea gure **gizarte-konpromisoaren** parte ere badelako.